

# ...eta **kitto!**

773 zkia. 2011-IX-6

ASTEKARIA

TOKIKOM

# Gurera sustrai eta atseden bila



## matrikula zabalik

### 2011/12 EUSKARA IKASTAROAK

**EUSKALDUNTZE OROKORRA**

(aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza)

**XEDE BEREZIKO IKASTAROAK**

(aurrez aurrekoa)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza



Sostoa 1, 1. solairua    Telefonoa: 943 201 379




[eibar@aek.org](mailto:eibar@aek.org)

# KANTABRIA Jatetxea

Arrate Gaina, 4  
279 Postakutxa  
20600 EIBAR  
943 121 262  
943 127 334



*Edozein  
ospakizuretarako  
aukera*



[www.kantabriajatetxea.com](http://www.kantabriajatetxea.com)

**EZKONTZAK**

**BATAIOAK**

**JAUNARTZEAK**

ARRATEKO SANTUTE-  
GIAREN ondoan  
aurkitzen gara

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,  
zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak,  
karta, enpresa bazkariak...



RESTAURANTE KANTABRIA  
KANTABRIA JATETXEA



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi, E.Belar

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Maria Jose Garcia

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.100 ale

**INPRIMATEGLIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen al-  
dizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**HESTE-SOBRE.-** Gaztelera 'apéndice'. "Heste-sobreko miñakin dabill aspaldian".

**HESTE-SOBREKUO.-** Apendicitis. "Heste-sobrekuakin eruan dabe ospitalera".

**HILLETIA ERABILLI.-** Norbait beti kejatzen, hileta jotzen dabilela esateko. "Bihar kontua aittatu ezkerok hik erabilliko dok hiletia".

**HILLETIA JO.-** Kejatu. "Hiletia jotzen bizi zan zergaittik barik, esker txarreku zalako".

## ESKUTITZAK

### GAZTETXEAK HERRITARREI

Badira hilabete batzuk Eibarko hainbat gazte biltzen hasi ginela, gure kezkek, nahiak eta beharrak asetzen lagunduko duen gune baten beharrak bultzatuta batipat. Eibarren herritarrok eta herriarentzat bultzaturiko espazio eta guneen beharra asetu asmoz iragan astean, abuztuko 24an, Iparragirre kalean dagoen eraikin bat berreskuratu genuen.

Karmelitas elizatik gertu dagoen eraikin hau duela urte batzuk hutsik dago, Iris enpresak beste eraikin batera alde egin zuenetik hain zuzen ere. Urte horietan zikinkeria pilatu besterik ez da egin bertan, eta bertan iragarrita zegoen proiektu urbanistikoa geldiarazi zenez, ez du ematen eraikinaren jabeek bestelako asmorik zutenik zikinkeria pilaketarekin jarraitzeaz gain. Espekulazioarentzat ateak beti irekita dauden bitartean herritarrok ez daukagu hain erreza gure beharrak beteko dituzten espazioak izatea.

Ez gara gutxi baliabideak herritarren eskutan egon behar direla uste dugunok, eta ez etengabeko diru pilaketaren zerbitzura, zeinak bide batez esan dezagun, ez ditu gure nahi eta beharrak asetzen, ez gai-

tu zoriontsu egiten eta, gainera, aldioro-aldioro krisi ekonomikoetan murgiltzera behartzen gaituen, bere efektuak larrutik ordainduz, gainera.

Ezinbestekoa da, dinamika honekin hautsi nahi badugu, instituzioen, agintarien eta merkatuen lege-etatik kanpo dauden guneak irekitzea, eta hori da hain zuzen ere gaztetxe berri hau ireki dugunean egin nahi izan duguna. Adin guztietako gazte eta herritarrek bildu nahi dituen leku bati ateak ireki eta bertan, gu guztion artean, denon ahotsa entzunez erakitzen hasi. Horretarako hasi ditugu jada lanak: garbiketa, txukuntzea, espazioen egokitzea... Eta etorriko direnak! Eztabaidatzea, kultur ekimenak antolatzea, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak... Eta bururazten zaiguna, bururazten zaizuen...

Horregatik ozen esan nahi dugu gaztetxea gure irekia dela, errespetuz aritu nahi duen ororentzat. Bertatik pasatu eta parte hartzea animatzen zaituztegu. Bertan izango gaituzue zain!

Gaztetxea denon etxea!

GAZTETXEKO ASANBLADA

### ERREDAKZIOAREN OHARRA

HURRENGO ALEA IRAILAREN 16-AN (datorren astean) kaleratuko dugu.

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Euskarazko hedabideek erdarazkoek baino hobeto ematen dute informazio bera. Erdarazkoek beti egituratu dute euren albistegintza profesionalagoa delakoan, eta gurea amateurragoa, euskaraz bakarrik jarduten dugulako: hori oinarri bako ustea da eta konplexuak alboratu behar ditugu. Bestalde, erdarazko titularretan ere horikeria gehiago egoten da. Albisteen lanketan, baina, euskarazkoek puntuazio nahiko baxua dute: kanpotik etortitako informazioa ia tratatu barik ematen dute eta horrek publizitate kutsua hartzen du"

(Maria González, Komunikazioaren doktorea)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## autuan

### WORLD-KAFEA

Eibarko Jabetze Eskoliak irailaren 17rako "Amodio Erromantikoa" izenburuko world-kafea antolatu dau (11.00etan Untzaga plazan). Juan nahi dabena hillaen 9xa baiño lehen emon biharko dau izena, Andretxean (943700828 telefonuan, andretxea@gmail.com helbidian).

### AUTOBUSEN ORDUTEGIXA


Atzo sartu zan indarran neguko ordutegixa Eusko Treneko autobusetan. Aldaketak Eibar-Deba Express, Eibar-Elgoibar Express, Eibar-Soraluze-Mendaroko Ospittala eta Eibarren geratzen dan Ermua-Azpeitia zerbitzuetan eukiko dabe eragiña. Eibar-Elgeta zerbitzua astegunetan egunian birritan eskintzen hasi dira eta Udalbusa uda aurretiko ordutegira bueltauko da. Informaziño gehixago 902543210 telefonuan edo [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es) helbidian.

## Irailleko ordutegixa Pegora eta Portalean

**IRAILLAREN 1-AZ GEROZ-TIK PEGORA ETA PORTALEAN JENDIA HARTZEKO ORDUTEGIXA ALDATUTA DAGO.** Pegora Herritarren zerbitzurako bulegua astelehen eta barixaku bittartian goizez, 09.00etatik 13.30xetara zabalduko dabe. Ordutegi hori hillaen 15a bittartian egongo da indarran. Irailaren 16tik 30era, berriz, astelehenetik eguenera goizez (09.00etatik 13.30xetara) eta arratsaldez (17.00etatik

19.30xetara) zabalduko dabe eta barixakuetan 09.00etatik 13.30xetara.

Portalea kultur etxia, barriz, hillaen 7ra arte 09.00etatik 20.30xetara zabalduko dabe eta irailaren 12tik aurrera 09.00etatik 21.30xetara (8, 9, 10 eta 11n itxitta egongo da). Ordutegixa astelehenetik barixakura bittartekua da, irailaren azken asteburura arte ez diralako hasiko zapatu eta domeketan Portalea zabaltzen.



## Untzagako jubilau etxia laster zabalik

**UDIA APROBETXAU DABE UNTZAGA JUBILAU ETXEKUAK ATIAK ITXI ETA LOKALARI METRO GEHIXAGO EMOTEKO BIHARRAK EGITTEKO.** Txaltxa Zelaiko parkiñaren zati bat lehendik zeken tokixari gehittuta, 1.400 bazkide dittuan lokalak 160 metro karratuko azaleria irabazi-

ko dau. Bestiak beste, tabernia eta sukaldia haunditu eta beste gela bat eta biltegi barri bi egitten dihardue. Holan, herrixan bazkide gehixen dittuan jubilau etxian urtian antolatzen dittuen jarduerak bihar dan moduan aurrera etartzeko moduan izango dirala pentsatzen dabe bertako arduradunak. Biharrak 468.000 euroko presupuestua euki dabe eta hillaen erdikaldera atzera be atiak zabalteko moduan izango dirala dago aurreikusitta.

Edozelan be, biharrak ez detse ikasturte barrirako ekitaldixak antolatzeko ohiko martxiari eragiñ: hillaen 14rako Errioxara, Viña Real ardandegira juateko urteeria antolatu dabe. Autobusa Ego Gaiñetik urtengo da 08.30xetan eta, ardandegixan bisitia egifi ostian, Logroñoeko Zenit hotelian bazkalduko dabe. Arratsaldian Logroñon baktokak nahi dabena egitten jarduteko aukeria eukiko dabe jubilauak. Txartelak bulego ordutegixan salduko dittue (25 eurotan bazkidiendako).



## Urkizuko dorrietan kanaloiak ipintzen

**EURIXA EGITTEN DABENIAN URA JASO ETA BIDERATZEKO KANALOIAK IPINTZEN DIHARDUE URKIZUKO DORRIETAN.** Oñ hurrengo dorrietan egindako biharren ostian, bestiak beste lurra jaso eta balastradak kanbi-xau zittuen, baiña ez eben kanaloirik ipiñi. Baiña azkenian gaixari buelta batzuk emon ostian, Udalak Obras Especiales Gipuzkoa enpresari emon detsa kanaloiak ipintzeko arduria, 171.000 euro pasatxoko presupuestua daken biharrak egitteko. Hiru hillebeteko tartia eukiko dabe 1.600 metro kanaloia eta ura jasotzeko 368 metro bajante ipintzeko, "beti be in-guruan dagan estetikiari jarraituta".

## Bost tabernia itxi dabe

**UZTAILLAREN 30-IAN ITXI ZITTUAN ATIAK BETIRAKO SAN ANDRES PASIALEKUKO BOST TABERNIAK** baiña, agur esan aurretik, jaixa preparau eben: bestiak beste Alex H. aka Fari, Pantaka, Bolitxe, Barrene, Beato eta Benito aka Milaka Kolore DJ-ak jardun eben arratsaldian hasi eta ordu txixixetara-raiño luzatu zan jaixa girotzen.



## Gaztetxe barrixa Karmeliten aldamenian

**EIBARKO GAZTE ASANBLADA BARRIXAK ABUZTUAREN AZKEN EGUNETAN EGIN ZETSAN GAZTETXE BARRIXA ZABALDU AHAL IZATEKO BIHARRERI,** Ca-

dena Iris lantegixak bete eban edifiziaua (Iparragirre kaliaren hasierian, Karmeliten eliza aldamenian) "okupau" ostian. Bariakuan bertan inaugurau eban gaztetxia, jende mordua batu eban triki-poteo eta kalejiriarekin. Herriko kalietan ibilli eta gero, gaztetxeko atian taldiak erretratua etara eban eta horren ostian barruan segidu eban jaixak, afari-merixenda egitten gertzera animau ziranekin. Aurrerantzian bertan ekitaldixak antolatziari ekiteko ilusiñuakin dagoz urtebetian gaztetxe barrixa zabaltzeko asmuakin kalian batzen jardun daben gaztiak. Bestalde, batenbatek altzari zaharrak (mahaixak, aulkixak, besaulkixak...) botatzeko asmorik bada-daka, gaztetxian gustura hartuko dittuela azaldu dabe.



## Behin-behiñeko geltokixa Estaziñuan

**EUSKO TRENEK ESTAZIÑO KALEKO GELTOKIXA BARRITZEKO BIHARRAK AURRE-RA DIHARDUE** eta udan, trenbidian ez eze, eraikiñaren barrukaldian be hasi ziran biharrian. Hori dala eta, bertan sartzerik ez daguenez, biharrak dirauen bittartian behin-behiñeko geltokixa ipiñi dabe martxan Estaziñuan bertan, San Agustin eliza pasau eta ezkerretara. Bertan txartelak erosteko makiñak eta bestelakuak ipiñi dittue eta nasetara juan edo bertatik urtetze-ko be handik pasau biharra daka jendiak.

## Edateko uraren saria barrizatzen

**GIPUZKOAKO URAK ENPRESAKUAK HERRIKO HAINBAT KALETAN URAREN KANALIZAZIÑUAK BARRIZATZEN DIHARDUE** eta biharrak udazkenerako, San Andres jaixen inguruan amaitzia espero dabe. Edateko ur sareko ardatz nagusixa zatika kanbixatzen jardun dabe azken astiotan eta egunotan Julian Etxebarria kaliaren



bidegurutzian hasi eta Urkizuraiñoko zatixa barrizatzen dihardue. Horrekin batera Isasi eta Egigurentarren kalietan be jardun dabe biharrian. Ur sariaren ardatza barrizatzen doiazan neurrixan, ur biltegiak alkarri lotzen juatia eta ur horniketia etetzen ibiltzia saihestuko dittuela diñue arduradunak.


## Gudarien Plazako plakak kendu dittue

**UZTAILLAREN 29XAN KENDU ZITTUEN GUDARIEN PLAZAN** (Toribio Etxebarria kaliaren hasierako lorategixetako batian) eguazzen plaka bixak, holan PP alderdixak Herri-zaingo Saillari egindako eskaeria beteta. Popularrak egindako eskaeria jasotzen dabena- ren arabera, "plaketan ageri diran izenak terrorismuari gorazarre egitten detse eta bikti- mendako iraingarrixak dira". 2006az geroztik horman egon diran kartelen barri Dignidad y Justicia alkartiak egindako salaketa baten harira izan ebela gaiñeratuta, "plaka horren gai-

## Pagatzako 64 andra Frantziara bidaian


**URTEROKO MODUAN, AURTEN BE PAGATXA ALKARTEKO ANDRAK BI-**

**DAIA EGIN DABE JULIXUAN.** Argazkixan ikusten dittuzuen 64 andrak egun bi emon zittuen Frantzian eta, bestiak beste, Dijon, Clucy eta Beaune ezagutzeko aukeria izan eban. Jakiña, primeran emon zittuen etxetik kanpora igarotako egunak.



ñeko barririk ez zekan" Eibarko Udalari lehenbailehen horretxek kentzeko eskatzeko asmua azaldu eban eta eskatutakua uztaillaren amaierian ikusi eban beteta, agindutakuari jarraituta udaltzaiñak plaka bixak hormatik kentziarekin batera.

## Zer begittantzen jatzu umiak tabernetan sartzen ez lagatzia?



**KARIMA JEBARI**  
35 urte  
administratibua

Oso txarto begittantzen jata. Tabernara kafia hartzera sartu nahi izatia eta seme-alabak kanpua laga bihar izatia, hori besterik ez genduan bihar!




**BEATRIZ RODRÍGUEZ**  
52 urte  
etxebarruko bihargiña

Semia honezkero nagusixa da, baiña txikixa zanian arazo barik ibiltzen giñan tabernetan, eta orduan sasoiari erre eta dana egitten zan. Oñ umerik ez onartzia astakerixa galanta begittantzen jata.


**JON OLARIAGA**  
28 urte  
bihargiña

Ondo begittantzen jata, umiak kalia ibilli bihar dira eta ez taberna zuluari sartuta. Hamen ume mordia ikusten dira tabernetan eta pentsatzen dot egokixagua dala parkietan, mendixan eta holan ibiltzia.



**JUAN ARENAS**  
66 urte  
jubilaua

Oso txarto begittantzen jata tabernarixak holako erabagixa hartzia, horretarako aukeria emoten daben legia oso txarto ipiñita dago. Zer nahi dabe, dirua hartu besterik ez, ala?



Munduko  
kaferik onenak...

...ehatu eta potetan  
berrehala  
sartutakoak

Zatoz  
dastatzera!  
Zure zain  
gaituzu!

**KATETXO**

J. Etxeberria, 5

**TE, KAFE  
ETA TXOKOLATE**

detale originalak aurkituko dituzu  
eztei, urtebetetze, Gabonetako otar eta opariak...

...toki guztietakoak  
eta aromatizatuak...

Te jatorrizko  
eta aromatikoak...

Txokolateak eta  
bonboiak...

Tel.  
943-257536

Informazioa  
eta eskaerak:  
katetxo@yahoo.com

FACEBOOK-en gaude

**Bacoleky**

ardoteagia

1. URTEURRENA

**Ondo pasa  
jaixak!**

Urkizu, 11 - behea  
943-031001

**Jai Zoriontsuak!**



**HOTELA  
JATETXEA**

[conecta@hotelkrabelin.com](mailto:conecta@hotelkrabelin.com)


[www.hotelkrabelin.com](http://www.hotelkrabelin.com)

Tel. 943 202 727 Faxa. 943 208 991 Arrate auzoa, z/g -EIBAR-

**Ezkontzak**

**Dantza terrazan berandu arte**

**Enpresa bazkariak**



**ASTELEHENETAN ITXITA**

*Gutariko askok udako bakaziñuak Eibartik kanpora egun batzuk pasatzeko aprobetxatzen ditudugu, baiña badira errepidietan kontrako norantza hartu eta gurera etortzen diranak. Eibarrek urte osuan eta, jakiña, baita udan be, adiñ eta jatorri diferentietako turistak hartzen ditu eta oportetarik bueltan gurian horrerik ostatu emoten detsenekin berbetan jardun dogu, zelako udia pasau daben jakittekko asmuarekin.*

## EIBARREN be badakaguz TURISTAK


**N**orberaren herri edo ingurutik kanpora egun batzuk pasatzen dituduenari turista esaten detsagu, baiña berba bakkarraren atzian daguan jende multzoa erabat heterogeneoa, anitza da. Horregaittik, turisten artian gustu, interes eta aktibidade diferentia bilatzen dituduenak dagoz. Hainbat faktorek eraginda, turisia modu batekua edo bestekua izango da, alegia. Baiña, zelakuak dira Eibarrera etortzen diranak?

Herrixan lotarako daguan eskintzari begirata, alojamiento klase diferentia ditudugu eta horretatik zein aukeratzten daben arabera, hortxe euki geinke lehelengo pistia. Kanpotik gurera egun batzuk pasatzera etortzen diranak herrixan bertan Arrate Hotela topatzen dabe herrixaren erdi-erdixan, Ego Gain



Arrate Hotela sarrittan talde haundixak hartzen ditu, udan zein urteko beste sasoi batzuetan be.

kalian. Oin dala urtebetetik hona bertako zuzendarixa dan Débora de Dios-ek azaldu deskunez, "geurian bihar asko egitten dogu taldiekin. Estadu barrutik datozenen artian, katalanak eta valenzianuak dira nagusi eta atzerritik etorritakuen artian, barriz, italianuak eta frantsesak. Hortik aparte, hamen inguruan dabillen jendia be etorri jaku, Bilbo edo Donostiarako bidian hamen gaba bat edo pare bat geratzia erabagi daben hainbat. Eta Aitta Santua Madrillen egon zanian



Hiru belauldik bat egiñ eben Krabeliñen, 10 eguneko egonaldixan.

be igerri zetsagun. Bestiak beste harako bidian zoiazan Italiako 150 gazte euki genduzen geurian. Eta, urtero Europatik Marruekosera automobilian doiazela aberixaren bat daken asko be geurera aillegatzen dira, automobilla konpondu bittartian zaiñ egon bihar daben denporia emotera".

### Zirkuituetan dabizen taldiak

Arrate Hotela 88 habitaziño dakaz eta martxa onian jardun dabe udan: "Okupaziñua %70 ingurukua izan da. Bestalde, beste hotel batzuetako estadistikeri begira, batzbeste jendia ez dau emoten gabe pare bat baiño gehixago, baiña gure media 3 gabe kua da eta zirkuituetan etortzen diranak erregular 5 gabe pasatzen ditudue gurekin. Udan etorritako bezeruen artian famelixa asko egon dira, bestiak beste hiru eta lau lagunendako gelak baditudugulako. Hamendik aurrera enpresetako bezeruak hartuko detse txandia oportetan ibilli diraneri".

Hotela turismuaren gaiñeko informaziñua zabaltzeko gunia be bihurtzen da sarrittan, bertako zuzendarixak ondo dakixan moduan: "Zirkuituetan etortzen diranak EAEko hiriburuak eta beste hainbat toki ikusteko preparauta ekartzen daben programari jarraitzen detse, baiña halanda be beti eukitzen dabe arratsalderen bat libre eurak nahi dabena egittekko eta holakuetan, zer egin leikien galdetzen dabengan, beti ahalegintzen gara hamengo Industriaren Museora bidatzen eta intereseko beste tokixen barri emoten. Jendia oso inpresiño onakin alde egitten dau, Eibarren ambiente haundixa daguala begittantzen jakue eta, gaiñera, abuztuan etorri diranak nahiko eguraldi ona euki dabe, uztaillarekin konparauta, behintzat".





Sosola basarrixan egindako harrerian pozarren bueltatu da Asturias aldera Mari Jose García. Bere arbasuen pistari jarraituta, Gisasola basarrixan egon zan bere famelixaren sustraixen billa.


### Asturiasetik Sosola basarrira

Amañatik gorako bidia hartuta, Mandiola basarri auzuan dago Sosola basarrixia. Basetxe edo agroturismo gehixenetan edo ia guztietan pasatzen dan moduan, honetan be askorendako herritik kanpora egotiak “desabantaillak” izan leikiazanak bentaja modura ikusten dittue bertara juatia aukeratzten dabenak. Esther Gisasolak zuzentzen daben basarrixan lau gela bikoitz dakez, juan nahi dabenari harrera berua egittek preparaut. Erregular, bertan hartzen dittuen turistak basarrixak berak zeñi inguruko mendixak eskintzen dittuen guztiekin gozatzerajuandakuak izaten dira, baiña tarteka marte-ka beste asmo batzueri jarraituta bertaraiño aillegau eta etxian hartzen dittuen beste “turista” batzuk be agertzen dira eta batzuetan,



eurekin batera, istorixo kuriosuak be sartzen dira Sosolanian. Horretako bat euki dabela kontau desku Esther Gisasolak: “Xixonetik lagun bi etorri jakuz abuztuan, euretako baten arbasuak Gisasola abizena zekela eta, apelliduaren gaiñian gehixago jakin nahixan. Hamen egon ziran egun batzuetan eta Gisasola basarrira eruan nittuan, bertakuekin berba egittek. Pozarren geratu ziran”.

Asturias aldetik etorritakuak M<sup>a</sup> Jose Gar-



cia eta haren lagun bat izan ziran. Berarekin berba egittek aukeria eukitta, Sosolaraiño zelan etorri ziran jakin nahi izan dogu eta bere ahotik jaso dogu pasadizuaren barri: “Nere aitxixak, aittaren aldekuak Gisasola apellidua zekan eta nik betidanik euki dot famelixaren arbola genealogikuaren gaiñeko jakinmiña, urtietan atzera ikertzen jardun dot luzaruan eta, harititik tiratzen hasitta, Konbentzio gerraren ostian Eibar eta inguruko

# ARTOLA

jatetxea

## ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Lomo iberikoaren carpaccio-a  
Etxeko foie-a  
Txipiroy nahaskia

Legatza laban edo  
Bakailaoa Club Ranero erara

Solomilloa plantxan edo  
Ahate confit-a

Degustazio postrea edo  
Txokolate mousse-a edo  
Limoi sorbetea cavarekin

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Astehenetik  
barixakura  
EGUNEKO  
MENUA  
15 €

25 € + BEZ

Tokia gordetzeko:  
943206348

EGOITZA NAGUSIA  
Bilbarrizeta 20 - beheko eskuma

M FUNERARIA MUGICA


Tanatorio Crematorio del  
Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errausketa labea  
Egoibonari (Signo poligonarri).  
Partikular, mutua eta seguru enosi zerbitzuak  
Koroak - Eskelak - Urteurriko eskelak  
Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen ditugu  
Nazio eta Nazioarteko iruzkidak

Mugica  
Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)  
943 201 951

armero batzuk Asturiasera jua eta bertan geratu zirala jakin neban. Orduan, nere arbasuak jatorri euskalduna eukiko ebala ikusita, ingurua ezagutzeko gogua nekan eta lagunak eta bixak Sosolara juatera animau giñan, hori zelakua zan ikusteko. Egixa esateko famelixari buruz egitten diharduten inbestigaziñuak poz haundixak emon destaz aurretik be eta oinguan ez da diferentia izan: Estherrekin zoragarri ibilli gara, etxe-kuak moduan hartu gintuan eta Gisasola basarrira eruatia proposau zeskunian benetan emozionau egin nintzan. Hantxe be, Pedrok eta Aitorrek egindako harrerria zoragarria izan zan. Hortik aparte, Eibar, Bergara, Oñati eta Antzuola ezagutzeko aukeria euki dogu eta, Gisasolara juandako egunian izan ezik bestietan eurixa egin zeskun arren, oso ondo ibilli giñan, guardasola har-



Akitaniarako bidian, atzera be Euskal Herrira bisitatzen egon zan famelixia, oinguan seme bixak koskortuta.

tuta gora eta behera ibilli giñan. Azken batian, geu be eurixakin ohittuta gagoz eta ez zeskun trabarik egiñ nahi genduana ikustera juateko orduan”.

Basarrixan emondako egunak “ederrak” izan zirala be kontau desku: “Tokixa benetan politta da, eta basarri barruan ez da detallerik falta. Gaiñera, gurekin batera ostatu hartuta eguazenekin batera hartzen genduan armozua, bertako produktuekin eta oso tertulixa eta giro politta egoten zan goizian goizetik. Laguna eta bixok automobil barik etorri giñan, baiña halanda be bertara juateko arazo barik moldatzen giñan taxixa hartuta”.

### Krabelin hotela Arraten

Eta beste paraje zoragarri batian dago Krabelin hotela, Arraten hain zuzen be. Mireia Alonso eta famelixakuak atsedean gitxi hartu dabe uda honetan, berak kontau deskun moduan: “Gurera etortzen diran turistetan klase diferentia dagoz, baiña badakaguz kalendarixuari begira urtian birritan etortzen jakuzen bezeruak, tiro-pitxoian jardutera etortzen diranak hain zuzen be. Horretxek oso kliente onak izaten dira, edukaziño haundikuak eta gure artian hiruzpau egun emoten dittuenak. Jatorrixari begira, Espaiñiako hainbat tokittatik zein Frantziatik etorritakuak izaten dira. Hain zuzen be, gure lehehengo bezerua urtero etortzen dan frantses bat izan zan eta haren bitartez errepikatzen segitzen daben beste bezero asko ezagutzen jua gara. Erregular uztaillaren azken egunetan eta abuztuko lehehenguetan egoten dira honek”.

Julixuan eguraldixak larregi lagundu ez eban arren, Krabelin turistak euki zittuela esan deskue: “Gironatik etorritako batzuk egon ziran gurian eta, eurixa geratzen ez zala ikusita, umoretsu hartu eben egokitu jakuen girua. Eguzkixa atzera be agertzen zanian deittu eta bueltan etorriko zirala esanda agurtu ziran. A Coruñatik lau lagun be etorri



Krabelin Hotelian urtero-urtero errepikatzen daben taldeak hartzen dabe, tartian euren lehehengo bezerua izan zan Tony Lamarque frantsesa.

jakuzen, abuztuan, eta 10 egun pasau zittuen hamen. Euretako batek egun bakotxerako plana alde aurretik preparauta ekarri eban eta primeran ibilli ziran, Euskadiko hiru hiriburuak ezagutzen, Iparraldera txangua egitten, Gorbea, Urbia eta hainbat basarri ikusten...”.

Lehenago Euskal Herrixan egon eta urtiak pasauta, orduan sasoiaren etxera bueltan eruan eben oroitzapen onak animauta atzera be bisittan etortzen diranak be badagoz: “Umiak txikixak ziranian Euskal Herrixan ibillitako famelixia bat etorri jakun, Akitaniarako bidian zoiazela atzera be hamen inguruan egun batzuk emoten, oso rekerudo ona zekela eta ointxe seme bixak koskortuta atzera be toki batzuk bisitatzeko asmuakin. Normalian kostako tokixak betetzen juaten diran neurrixan, Donostiako erreserba zentrotik gurera jendia bidaltzen hasten dira. Alde horretatik, Donostiako Asite Nagusixan beti eukitzen dogu mugimendu haundixagua”.

## Armagintzaren Museua FECIEX 2011 azokan izango da

**EIBARKO ARMAGINTZAREN MUSEUA HILLAREN 15-ETIK 18-RA BADAJOZEN EGINGO DAN XXI FECIEX 2011 AZOKAN IZANGO DA PARTE HARTZEN.** Urtero antolatzen dan Iberiar Ehiza, Arrantza eta Naturari buruzko azokako arduradunak, ohiko martxiari jarraituta, azokan bertan 1.000 metro karratuko azalera beteteko daben erakusketa tematikua preparauko dabe aurten be eta XXI. ediziño honetan, erakusketa horretarako protagonista bakarra Armagintzaren Museua izatia erabagi dabe. Erakusketan Eibarko Museuak dakan armabildumako piezari esanguratsuenak ikusgai ipintzeko asmua dake museoko arduradunak, “berta gerturatzen diraneri armagintzan betidanik tradiziño haundixa izan daben herri honen industria-patrimonia eta oroimen historikua erakusteko asmoz”.





**IRAZABAL**  
clínica dental



Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.  
Tel. 943 208552

**Badirelako gauza batzuk galtzea komeni ez direnak...**  
**IRAZABAL KLINIKAN txikienen aho-hortzetako**  
**prebentzioaren alde egiten dugu apustu.**  
**Egizuz PADI-ren azterketak.**

# **ARRATEKO AMAREN JAIK 2011**

## **irailak 7, 8 eta 11**



antolatzailea: **EIBARKO UDALA**

laguntzaileak:

ANDIRAO ELKARTEA, ...ETA KITTOI, BETIKUAK, EIBARKO KLUB DEPORTIBOA, KEZKA DANTZA TALDEA

# Arrateko Ama dantzan ipintzeko moduko doinuak

**N**ormalean baino luzeagoak izango dira aurten Arrateko jaiak, eta herriko eragile eta Udalak ederki aprobe-txatuko dute aukera hori festa denbora gehiagoz luzatzeko. Asteburuaren hurbiltasunak horretarako aukera luzatzen du eta Arrateko zelaiak jendearen oinen pisua jasango du musika doinuen baitan dantzan eta saltoka.

Musika Arrateko jaien bezperatik biharamonera izango da protagonista, eta ez da edonolako kalitatea eskainiko, maila handiko taldeak igoko baitira zelaira bideko erre-buelta guztiak pasa ostean.

## Rocka Baiona eta Eibartik

Willis Drummond izango da mendiko giro lasaia astinduko duen lehen taldea. Baionatik rock makina zorrotz eta eraginkorra ekarriko dute gurera. Euren disketxearen web-gunearen berbetan, *"Fugazi eta AC/DC-ren izpirituak helduz, musika sako eta mamitsu"* proposatzen dute lapurtarrek. 2007an kaleratu zuten lehen diskoa, Anthology, eta orduetik beste bik argitaratu dituzte: Willis

**Irailak 7**  
**23.30**  
**Willis Drummond**  
**EH Sukarra**

**Irailak 8**  
**19.00**  
**Joselu Anaiak.**  
**23.00**  
**MP5**  
**00.30**  
**Ze esateki!**

**Irailak 9**  
**22.00**  
**Jai elektronikoa**

Drummond (2009) eta Instanteak (2011). Kontzertu harrigarriak eskaintzen ditu Iparaldeko laukoteak eta Euskal Herrian, Espainian, Frantzia eta Belgikan horren berri eman dezakete.

Rock lapurtarraren ostean... Eibarko rocka! EH Sukarrak urteetan zehar maisutasunez zabalduko doinuak Arrateko zelaira ekarriko ditu publiko leialari eskaintzeko. Lazko Sanjuanetan izan zuen herrikide artean azken agerpena talde eibartarrak, eta Arrateko jaien bezperan berriro elkartuko dira.

22 urte dira Norton, Fakun eta Cesarrek taldea sortu zutela, eta estudioko sei diska eta zuzeneko baten ostean, oholtza gainean ibilbide osoan zehar egindako lanak eskaintzen jarraitzen dute.

## Atsedetik ez

Gaua ez da lasaia izango programak aurkezten duenaren arabera, Willis Drummond eta EH Sukarra hortan saiatuko dira behintzat. Baina bezpera lasaia izango ez bada, are gutxiago Arrate Eguna. Udalak eta txosnetako eragileek antolaturiko ekintzak bata bestearen atzetik ipiniz, arratsalde eta gau aldean izango da gorputza astintzeko aukera. Soberan.

Eguzkiak pixkanaka behera egiten duen momentuan hasiko da zuzeneko musikaren



MP5

## Luis Mari Gorosabel Aristegi-ren

heriotzaren 10. URTEURRENA

### EZ AGURRIK,

GURE BIZITZAN ZAUDE BETIRAKO.

MAITE ZAITUGU. *Etxekoak*

Eibar  
2011ko uztailaren 31



Ze esatek!



EHSukarra

giroa Arrateko zelaian. Nola ez, Joselu Anaiei eskutik. 19.00etatik 23.00etara dantzaldia eskainiko dute, eta bezpera eta Arrate Egun osoan zehar agortu ez diren indar horiek erretzeko txanda izango da.

Joselu Anaiei talde berri batek hartuko die lekukoa. Kezka dantza taldeko kide batzuek sortutako MP5 musika taldea igoko da zelaiko oholtzara eta talde berri batek duen freskotasuna erakutsiko dute herriki-deen aurrean. Berria izanik, hala ere, aritu izan dira jada zuzenean gure herrian eta esperientzia handia hartzen dihardute denbora gutxian talde moduan.

Egunari amaiera handia emateko, Ze esatek! taldeak estilo 'ganberroa' ekarriko du Arratera. Rock, reggae eta ska doinuak entzun ahal izango dira euren eskutik eta 2009an sortutako taldea bada ere, kideek

beste talde batzuetan esperientzia handia duten musikariak dira.

Trikizio eta Txortains taldeen arteko tarteta da zehazki Ze esatek!, kideek Estatu Batuetan 2009an eginiko bidaiaren ondorioa. 2010ean kaleratu zuten gaur arteko diska bakarra, 'Ze esatek!', eta 'Ikasle Eguna 2010', 2011ko Kilometroetako abestia eta Bilboko Txori Barrote konpartsaren 25. urteurrena dela-eta 'Txori Barrote 25 urte' abestia ere egin dituzte denbora honetan.

#### Jai elektronikoa

Eibarko Haritza eskubaloi taldeak irailaren 9rako jaialdi elektronikoa antolatu du, Arrateko zelaian, 22.00etan hasita eta goizera arte. Jaialdian Eibarko DJ-ekin batera Ermua, Bergara eta Soralezetik gonbidatuta etorriko diren beste hainbatek

jardungo du. Horrez gain, 19.00etatik aurrera Eibarko Haritzak txosna zabalduko du, edari, ogitarteko eta bestelakoak saltzeko. Taldearentzat dirua biltzeko asmoz antolatutako jaialdira doazenek, bestalde, 700 euroko balioa duen lagun birendako lbizara bidaia irabazteko aukera izango dute, zozketan parte hartzeko bertan salduko dituzten txartelak erosita. Jaialdiko antolatzailerek bertara igotzeko zein Eibarrera jaisteko autobusak 50 minutuoro egongo direla aurreratu dute (hilaren 9an Arratera igotzeko autobusak 19.00etan hasiko dira irtetzen eta hilaren 10ean Eibarrera bueltatzeko lehenengo autobusa 06.00etan irtengo da).

Musika doinuaz betetako hiru egun, beraz, Arraten biziko direnak. Ez harritu Arrateko Ama zelaian dantzan ikusiz gero.

## Link idiomas

Member of Cambridge ESOL Centre ES438

# INGELES FRANTSES ALEMANA

**UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT**

**TALDE MUGATUAK**

**BAKOITZARI EGOKITUA**

**ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA**

**CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA.**

**MAILA GUZTIAK**

Juan Gisasola, 5 (EIBAR)

Telefonoa: 943 20 39 59

**JOSE ETA ARRATEK ABUZTUAREN 5-EAN 50 URTE EGIN ZITUZTEN EZKONDURIK.** Ez dira makalak, gazte haizetan oraindik ere!!! Urteekin hiru seme-alaba ekarri dituzte mundura, eta bilobak ere beste hainbeste etorri zaizkie gerora. Orain guztiok elkarrekin, eta beste senideak ere inguruan, urrezko ezteiak ospatu ditugu irailaren 4an,

Arrateko elizan meza entzun eta, ondoren, otordu bikaina egin da.



**ZORIONAK  
!!!**

*Hiru hamarkadatan zehar Egogaineko gerontologikoaren sukaldearen arduran ibili da Vicenta Berriozabal, eta egindako lan horri esker Kaiku saria jaso zuen abuztuan. Sukaldean egindako lana baino, hala ere, gerontologikoan zaharrekin izandako harremana gogoratzen du gustora Vicentak, edozein bazkari baino gehiago.*

**- Bizitza osoa sukaldaritzari eskainitako Kaiku saria jaso zenuen abuztuan. Zer sentitu zenuen horren berri izan zenuenean?**

Pixka bat txundituta geratu nintzen, ez nuen saria jasotzerik espero. Ez nuen imajinatzen ere, ezustekoa izan zen niretzat. Hala ere, oso pozik jaso nuen.

**- Polita da bakoitzaren lanarengatik errekonozimendua jasotzea.**


Egogaineko zaharregandik urteetan jaso dut errekonozimendua eta hori nahikoa da niretzat, eta Kaiku saria jaso barik ere oso pozik negoen urte hauetan bizi izan dudanagatik. Baina gustora jasotzen da horrelako sari bat, gainera jende ezaguna egon zen ekitaldian eta ederra izan zen.

**- Ekitaldian aipatu zen Egogaineko egoitzako zaharrak denbora gehiagoz bizi direla zure lanaren ondorioz.**

Beno, beno, bai, askotan entzun dut txan-txa hori, ni han lanean egotea errentagarria ez zela entzun dudan moduan (barreak). Oso gustora egon naiz han lanean, eta dena ahalik eta ondoen egitea izan da nire nahia.

**- Nola gogoratzen dituzu Egogaineko gerontologikoan pasatako urteak?**

Pozik egon nintzen, gustora, eta egoitzan zeuden zaharrekin denbora asko eman dut, harreman handia eduki dut, ez bakarrik sukaldean. Eurei entzun, zein gustu zituzten jakin, eta abar. Orduan, nik euren aldetik asko ikasi dut. Bakoitza nola aurkitzen zen jakin nahi



**VICENTA BERRIOZABAL, sukaldaria:**

**“Zaharregandik nahikoa errekonozimendu jaso dut urte guzti hauetan”**

nuen, tratu pertsonala eduki, eta behar bazen mimoak eman. Garrantzitsuagoa da niretzat eurei entzun edo zerbait esatea, bazkaria edo afaria ematea baino.

**- Zenbat denbora eman zenuen bertan?**

31 urte, 1980tik gaur egunera arte.

**- Eta orain laga egin behar izan duzu.**

Bai, nahikoa lan egin dut bizitzan zehar. Bost seme-alaba dauzkat, noizean behin eurekin egotea nahi dut eta baita nire ilobekin ere, eurekin disfrutatzea da orain nahi dudana, izan ere, lehen ez neukan astirik ezertarako ere.

**- Beti ibili zara sukaldari moduan?**

Egogainen lanean hasi aurretik jatekera neukan Legarre kalean. Hasieran gure jatekera etortzen ziren egoitzatik bazkaltzera, eta azkenean han amaitu nuen lanean.

**- Sukaldari moduan nola definituko zenuke zure burua?**

Sukaldaritza tradizionala gustatzen zait asko, hau da, betiko sukaldaritza. Gauza freskoak erabiltzea gustatzen zait, hori beti izan dut kontuan. Sasoiari sasoiari janariak egitea gustatzen zait, asko zaintzen dut hori.

**- Zaharrak mimatzen zenituela aipatu duzu. Maila handian?**

Ahal nuen beste. Han menu bat daukate zehaztuta, baina baten bat ondoezik bazegoen, bere gustoko zerbait egiten nion. Baina danei ezin nien horrelakorik egin, ezinezkoa da hori. Baten batek etxetik ekarri zioten zerbait sukaldean egiteko ekartzen bazidan, ezkutuan prestatzen nion, adibidez. Eurek asko baloratzen dute tratu hori, bazkaria bera baino askoz gehiago. Gertatu zitzaidan behin, nola Euskal Herri kanpoko jendea ere bada goen, gazpatxoak egitea eskatu zidatela. Niri ez zitzaidan gustatzen eta esan nion produktuak ekartzen bazizkidan, prestatuko niokela. Orduan asko gustatzen zait gazpatxoak.

**- Baserriko produktuak protagonista izaten dira zure bazkarietan.**

Bai, kalabazak, porruak, azak, ardi-esnea... Egogain bezalako lekuetan gauza asko ez dituzte erabiltzen lagatzen, baina modu eta neurri egokian erabiliz gero, ez dago zertan arazorik egon. Gainera, baserriko produktuak goizean hartu eta arratsaldean prestatzen dituzu, oso freskoak dira, eta alde handia dago supermerkatuan erosten direnen aurrean.



# Eguenean sariak Kittonbolan

**U**rteroko moduan, sariz beteta izango duzue ...eta kitto! Euskara Elkartek prestatzen duen Kittonbolia. Euro bat jokatuta, etxerako bidean besapean oparia eramateko aukera handia izango dute bertara gerturatzeko diren guztiek. Hurrengo orri bietan dituzuen enpresa, denda eta komertzioei esker, Kittonbolia sariz betetzea lortzen dugu. Guztira, 3.000 saritik gora batu ditugu azkeneko hilabeteetan eta datorren eguenean guztiak izango ditugu Arraten, banatzeko prest.

Aste Santu ostetik dihardugu antolaketa lanetan, sariak jasotzen eta prestatzen. Zortea guztion esku izateko asmoarekin antolatu dugu berriro



SILBIA HERNANDEZ

ere Arrateko tonbola berezia. Baina Kittonbolia zortea zirikatze-ko tonbola baino gehiago da, ...eta kitto! Euskara Elkarteen proiektuari laguntzeko modua ere ba-

da, Eibarren euskara bultzatzeko modua; hori bai, parte hartzen duen eibarrak saria jasotzeko aukera asko ere badu.

Gainera, eibarrerekin eskainitako laguntasunak gure egunerokotasunean egiten ditugun ekitaldietan, aldizkariaren argitaratzean eta abarreetan eragin zuzena izango du. Urte osoan zehar lanean jarraituko du ...eta kitto! Euskara Elkartek Eibarren euskara bultzatu eta indartu nahian, eta horrelako egunek asko laguntzen dute.

## 10.00ETAN ZABALIK

Betiko moduan, sariaren bat irabazteko aukera ez da txikia izango: telebistak, afariak, urdaiazpikoak, edertasun tratamenduak, etxeko tresnak, kamisetak, CDak, MP-5a, bizikleta, Nintendo DSa, otarrak etabar luzea. Guztira 3.000 sari bai-

no gehiago. Hori guztia lortzeko ezinbestekoa izan dugu hainbat denda, enpresa eta elkarteren kolaborazioa. Hurrengo orri bietan dituzue laguntasuna eskaini duten guztien zerrenda.

Beraz, eguenean elkar ikusiko dugula espero dugu. Goizeko 06.00ak bueltan izango gara Arraten azkeneko antolaketa lanak egiteko eta 10.00ak puntuan salduko dugu lehenengo boletoa. Goizean goizetik sariak banatzen hastea espero dugu.

Ikasturte berria hasiko dugu guztiok egunotan, gaztetxoek eskolan, nagusiok lanean, gehienondako udako oporraldia amaitu da-eta. Horri aurre egiteko jai giroa baino hoberik ez dago eta Arrateetako jaiak eta Kittonboliak, besteak beste, hori dute helburu, ikasturte berria ezin hobeto hastea.



# Kittonbolia

# KITTONbolia



Euskara Elkarte

*Arrate egunean opariz beteta izango dugu Kittonbolia. Euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera asko izango dituzue. Eskerrik asko parte hartu duten denda eta enpresa guztiei!!!*

## • Alfa



- Ansa bitxitegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe



- Astigarraga
- Athletic Club
- Azitain erretegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak



- Baglietto
- Basik
- Batzokia
- Benicoba
- Blanca loradenda

## • Burbujas y más • Cadenas Iris



- Calefacciones Eibar
- Capi
- Depor taberna
- Dirdai bitxitegia
- Ditare
- Drach
- E&M
- Egaña elektrodomestikoak
- Eguren elektrodomestikoak
- Eibar Rugby Taldea
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkarte
- Eibarko Udala
- Eklipse



- El Cantón de la Avenida



## • El Corte Ingles



- Emankor taldea
- En boga ileapaindegia
- Eroski Hipermerkatua
- Errebal kirolak
- Eskarne jatetxea
- Eslune
- Esteban Oroz



- ...eta kitto!
- Farmalur
- Gar Men
- Gerritek
- Goien oinetakoak
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Hodei taberna
- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusimakusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Industrias Rosi
- Irritsa
- Itxesi
- Izadi loradenda
- Izane



## OSTALARITZA - VENDING

Zure zerbitzura

ostalaritza • enpresentzako •  
erregistro eta gestio sistemak



**urkotronik**  
25 urteko esperientzia




Polonia Ekeberri 14-16 • EIBAR


Tel: 943 20 51 12

Fax: 943 20 17 64

urkotronik@urkotronik.com



### • Jauregui



- Jaz- Zubiaurre
- Jeronimo
- Kantabria jatetxea
- Kareaga bitxitegia



- Kerala
- Ketesa
- Kinkila
- Krabelin hotela
- Kros-sports
- Lakett
- Laumar loradenda
- Leder
- Lide




- Lola's
- Mamacas
- Manpel
- Marian-Idoia spa
- +qwapos
- Meka-Hotel
- Mega

### • Mertxe gazta eta txerrikiak


- Neure
- Orbea



### • Pirritx eta Porrotx



- Pitxiak
- Publiresa
- Salaberria bitxitegia
- Solera Eibarresa



- Solera Estankoa
- Su Beroa-Oishi
- Su Ta Gar
- Talleres AIBE
- Tribeka

### • Trinkete



- Udalaiz
- Ulmar
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zero
- Zurkulu

Eskerrik  
asko  
parte  
hartu  
duzuen  
danori!

# Arrateko Amaren Jaixak 2011

## Irailak 7, ARRATE BEZPERIA

- 18.00.- MEZIA** Arrateko Santutegixan eta, ondoren, Salbea. Jarraixan, **TXUPINAZUA** eta kanpai-errepika.
- 21.00.- BERTSO AFARIXA:** Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. Gaijartzaillia: Asier Ibaibarriaga. Kantabria jatetxian. *Antolatzaillia: ... eta kitto! Euskara Elkarte.*



## Irailak 8, ARRATE EGUNA

- 10.00.-** Azittaingo surtidoretik urten eta **ARRATERA IGOERIA**, Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik. Saldia, txorizua eta ardaua banatuko ditue Zesteroko iturrixan. *Jai Batzordiak antolatuta.*
- 10.00.- KITTONBOLIA!**
- 10.30.- KALEJIRIA** Eibarko Usartza Txistulari taldiaren eskutik.
- 11.00.- MEZA NAGUSIXA** Arrateko Santutegixan. Kezka dantza taldiak eta Usartza Udal Txistulari taldiak Arrateko Amaren **EZPATA-DANTZIA** egingo dabe. Ondoren, **PROZESIÑUA**.
- 12.30.-** Kezka Dantza Taldiak eta Usartza Udal Txistulari Taldiak **ARRATEKO AMAREN DANTZAK** aurkeztuko ditue **ZELAIXAN**: ezpata-dantzia eta makilla txikixen dantzia.
- 13.30.- TRIKITILARI ETA BERTSOLARIXEN** saiua.
- 17.00.- BERTSOLARIXEN** saiua.
- 17.30 / 20.00.-** Bete zaitetz... baina emozioz! **ALKOHOLAREN INGURUKO KANPAIÑA** informatzaille eta hezitzaillia. Sasoa alkartiak (Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebenziñorako alkartiak) alkoholemia kontrolak egingo ditte. *Antolatzailliak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritza.*
- 17.30.- DANTZA SOLTE TXAPELKETIA.** 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidauta (bost 15 urtetik gorakuak eta beste bost 15 urtetik beherakuak).
- 19.00 / 23.00.- DANTZALDIXA**, Joselu Anaiak taldiarekin. Jarraixan, **ROCK KONTZERTUA**, MP5 taldearekin.

## **Irailak 11, KOFRADIXA EGUNA eta basarritar jubilaueen eguna**

- 10.30.- SIMON ALDAZABAL XVI. ANTIXIKETALDIXA.** Juan Mari Lejardi "Pastor"-i omenaldixa. Eibarko Klub Deportibotik urten eta Arrateraiño (Orbeko bidetik).
- 11.00.- MEZA NAGUSIXA** bertsolarixekin. Meza ostian, **AURRESKUA** Kezka Dantza taldiaren eskutik. Ondoren, **PROZESIÑUA** Usartza Txistulari Bandak lagunduta. Zaindarixari eskintza.
- 12.00.- PILOTA PARTIDUAK.** *Antolatzaillia: Eibarko Klub Deportiboa.*
- 12.00.- PAELLA LEHIAKETIA.**
- 12.30.- HERRI KIROLAK.**
- 14.00.-** Pilota txapelketa eta paella lehiaketia irabazi dabeneri **SARIXAK BANATZIA.**
- 14.30.- JUBILAUENDAKO BAZKARIXA** Krabelin jatetxian. Basarritar nagusixeri oparixak banatuko jakuez. Trikitilari eta bertsolarixak be hartuko dabe parte.
- 17.30.- IDI PROBAK.**

## **Arrate egunaren inguruko mezak**

- **EGUAZTENEAN (ARRATE BEZPERAN):** 18.00.- Salbea.
- **EGUNEAN (ARRATE EGUNEAN):** 09.30etan, 11.00etan (Meza nagusia eta prozesioa), 13.00etan eta 18.00etan.
- **KOFRADIA EGUNEAN (IRAILAK 11):**  
11.00.- Meza nagusia Arrateko santutegian. Ondoren, prozesioa.

## **Telefono jakingarriak**

**LARRIALDIK.-** SOS Deiak: 112. Gurutze Gorria: 943222222.  
DYA: 943464622. DYA anbulantziak: 943208480.  
**OSASUN ZENTROAK.-** Larrialdiak: 943461111 / 943440633.  
Erdialdeko anbulategia: 943032500. Torrekuako anbulategia: 943032650. Mendaroko ospitala: 943032800.  
**BESTEAK.-** Suhiltzaileak: 112/943202328.  
Udaltzaingoa: 092 / 943708424. Ertzaintza: 943204080.  
**GARRAIOAK.-** Untzagako taxiak: 943203071. Anbulategiko taxiak: 943201325. Eusko Trenbideak 902543210 / 943120546.

## **Jaixak Herrixak Herrixandako**

### **Irailak 7, Arrate bezperia**

- 21.30.- HERRI-AFARIXA.**
- 23.30.- KONTZERTUA:** Willis Drumond + EHSukarra.
- 04.00.- JOKUAK.**

### **Irailak 8, Arrate Eguna**

- 12.00.-** Preso eta iheslarixen aldeko **ELKARRETARATZEA.**
- 00.00.- KONTZERTUA:** Ze Esatek!  
*Antolatzaillia: Jaixak Herrixak Herrixandako.*

## **Jaialdi elektronikua**

### **Irailak 9, barixakua**

- 22.00.- MENDI ELEKTRONIKUA**  
**DJ-JAIA:** Eibarko DJ-ak eta gonbidatuak.  
*Antolatzaillia: Eibarko Haritza*

## **Autobus zerbitzua**

- **ARRATE EGUNEAN,** Eibarrera jaisteko autobusak egongo dira goizaldeko 02.00etan, 03.00etan, 04.00etan, 05.00etan, 06.00etan, 07.00etan eta 08.00etan. Arratera igotzeko autobusak, berriz, Toribio Etxebarria kaletik irtengo dira 09.00etatik aurrera, bete ahala. Egun osoan gora eta behera ibiliko dira autobusak. Jaisteko azkena 22.00etan irtengo da Arrartetik.
- **EGUEN GAUETIK BARIXAKUKO GOIZERA,** igotzeko autobusak egongo dira 21.00etan 22.00etara. Jaisteko, bestalde, 23.00etan, 00.00etan, 01.00etan eta 02.00etan izango dira
- **BARIXAKUAN,** igotzeko autobusak Untzagatik irtengo dira 19.00etan, 20.00etan, 21.00etan, 22.00etan eta 23.00etan. Jaisteko 06.00etan, 07.00etan, 08.00etan eta 09.00etan izango dira.
- **KOFRADIA EGUNEAN** (hilaren 11n), jaien errepikapena dela-eta, ohiko ordutegian ibiliko dira autobusak, baina zerbitzua indartuko dute. 09.00etan, 10.00etan, 11.00etan, 13.00etan eta 18.00etan irtengo dira autobusak, Urkizuko autobus geltokitik, ohiko geltokietan geratuta.

## Plater inguruko errimaren arrimura

Urteak joan urteak etorri, 1993an ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako Arrate bezperako bertso-afariak bide luzea egin du, aurten 19. edizioa bete arte. Orduko hartan, Juan Mari Narbaiza eibartarrarekin batera, Angel Mari Peñagarikano eta aurten ere gurekin izango diren Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña izan ziren.

Azken bi hauek dira, gainera, bertso-saio horretan gehien jardun dutenak: Lizasok hamaseigarrena izango du aurtengoa eta Egañak hamabosgarrena. Euren atzetik dago Gregorio Larrañaga "Mañukorta", gure

artean hamar aldiz izan dena, azkena orain dela zortzi urte, 2003an. Peñagarikano bost bider etorri da Kantabriara eta aurten helduko da kopuru horretara Maialen Lujanbio. Lautan izan da Sustrai Kolina eta beste hainbestetan izango da Amets Arzallus biharkoarekin.

Bitan izan dira Arraten Xabier Zeberio, Imanol Lazkano, Jesus Mari Irazu eta Joxe Agirre "Oranda" bertsolariak. Eta behin bakarrik, Juan Mari Narbaizarekin batera, Jokin Sorozabal, Jose Luis Gorrotxategi, Xabier Euzkitze, Igor Elortza, Aitor Mendiluze, Unai Iturriaga, Arkaitz Estiballes eta Julio Soto.



Iazko saioaren irudia: aurten Arzallusek hartuko du Sotoren tokia. / MAIALEN BELAUSTEGI



Andoni Egañak eta Sebastian Lizasok askotan jardun dute elkarrekin. Kantabrian ere 2000. urtetik kale egin barik izan dira.

### Sarrerak agortuta

Uztailaren amaieran salgai jarritako sarrerak agortuta zeuden abuztuaren hasierarako. ...eta kitto! elkarteko bazkideek ere inoiz baino arinago ibili ziren sarrerak eskuratzen euren dako bakarrik salgai ipini ziren aste bietan eta, jarraian, Sagarbitzan, Kultun eta Kantabrian salgai ipinitakoak di-da batean saldu ziren. Hori dela-eta, urtero legez, asko izan badira ere sarrerarik gabe geratu direnak, Kantabria jatetxeak ez du gehiagorako ematen, 220 bat lagun sartzen baitira bertan.

Biharko kartela ere zaila da hobetzea, maila gorenean diharduten bertsolariarekin osatuta baitago. Gutxi (bateren bat badago) izango dira urtean zehar Egañak, Lujanbiok, Lizasok eta Arzallusek baino plaza gehiago egiten dituztenak.

Azken urte bietan Rafael Zubizarretaren lekukoa hartu duen Asier Ibaibarriaga izango da gai-jartzailea oraingoan ere. Berak gidatuko duen saioari gatz eta piper guztia ateratzen saiatuko dira bertsolariok. Eta ikusle-entzule guztioi, on egin dagizuela!!

**MAITANE** jatetxea  
TIRO eremuan

Pintxoak  
Ogitartekoak  
Kazuelitik  
Eguneko menua  
Asteburuko  
menu bereziak

Arrate balle, 5  
Tel. 943 208 859

**PARKING PRIVATUA**

**GATE**  
English School

LOREA HERNANDEZ ARIZAGA  
INGELES FILOLOGIAN LIZENTZIATUA

Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

**ITURRI**  
ARDOAK

ETXERA ERAMATEN DUGU  
Eibariko Merkatu Plaza - Rialto  
Tel. 943 12 05 87

San Andres  
Gozotegia


- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

## Harrijasotzaileak eta aizkolariak, idi-probekin batera

**ORDUBETE INGURU IRAUNGO DU KOFRADI-XAKO EGUNEKO EGUERDIAN ARRATEKO ZELAIAN IZANGO DEN HERRI-KIROLETAKO SAIOAK.** 12.30etan hasita, Gisasola eta Urtea harrijasotzaileek hainbat modalitate jorratuko dute, tartean esku bakarrarekin eta, jarraian, bi aita bi semeren aurka ikusteko parada izango da. Ioritz eta Hodei, Zelai eta Bihurriren semeek, azken hauei aurre egiten saiatuko dira, jakinda ere beteranoek edozein trikimailu erabili dezaketela garaipena lortzeko. Motozerrarekin ere emango dute ikuskizuna.

Arratsaldean, bestalde, 17.30etatik aurrera, Ibon Oñederra "Agarre Azpi"-ko idiek Elgoibarko aurkari bi izango dituzte: Soarte alde batetik eta Artazo bestetik. Ez du erraza izango eibarrak lehia horretan nagusitzea, baina gero eta indartsuago dago, azken aldian erakutsi duen moduan.




Ibon Oñederra beste behin ahaleginduko da domeka arratsaldeko idi-proba bereganatzen.

## Simon Aldazabalen XVI. edizioa domekan

**GERO ETA OIHARTZUN HANDIAGOA DUEN PROBAREN BESTE EDIZIO BAT JOKATUKO DA DOMEKAN,** goizeko 10.30etan hasita. Klub Deportibo talde antolatzailearen lokalaren aurretik irtengo dute eta parte hartzeko izena emateko aukera izango da Depporren bertan ordubete lehenagotik. Aurten Juan Mari Lejardi "Pastor" omenduko dute, "aurreko urte guztiotan lasterketaren alde egin duen lanarengatik". Azken edizioan 47 atletek osatu zuten Arraterainoko ibilbidea.

## Gizonezkoen koadrila nagusitu zen Azitainen

**AURTEN BAI: GIZONEZKOEN KOADRILA NAGUSI IZAN ZEN BI ASTOREN ETA TRAKTOREAREN AURKA EGINDAKO DESAFIOAN** eta iaz Agarre-Azpi-ko idiarekin galdutakoaren mendekua hartu zuten. Hogei minutuko lana zuten aurrean eta, 600 kiloko harriarekin, 57 kuadra egin zuen koadrilak. Traktoreak eta asto biek horren bikoitza egin beharra zeukaten erronka irabazteko, azken hauek 760 kiloko harriarekin eta 80 kiloko extrarekin: Aritzmendi Goikoko traktorea gertu geratu zen, 112 kuadra egin baitzituen; Naiorbe baserriko astoak, bestalde, 71 kuadratan geratu ziren.



Izaro Nekane bere ahizpa nagusiarekin.

## Izaro Lasaren istripua Urretxuko lasterketan


**DEBABARRENAKO TXIRRINDULARIAK ERORKETA IZAN ZUEN ABUZTUAREN 27-AN JOKATUTAKO PROBAN** eta burezur-hausturarekin ingresatu zuten Donostiako Ospitaleko zainketa intentsiboetako unitatean (ZIU); bere egoerak, larria izanda ere, onera egin du azken aldian. Emakumezkoen taldeak laster-

keta asko egin ditu azken hilean eta baita garaipenak lortu ere, Ludivine Lozek kasu Semaine Cantaliennean. Leire Olaberria, bestalde, sari barik geratu zen Charente Maritimen, antolatzaileetako baten erruz, azken honek okerreko bidetik eraman baitzuen Debabarrenekoa helmugarako 50 metroren faltan.

## SALVADOR MARZANA AMUATEGUIren 1. URTEURRENA (2010-IX-7)

***Ez dugu gehiago zure hitzik entzungo,  
baina bai makina bat aldiz zure esanak gogoratuko.***

**ZURE EMAZTEAK**



## Eibarrek Lanzarote hartuko du bihar Kopako norgehigokan

**LAU PARTIDU OFIZIAL ETA DENETARIK EZAGUTU DU 2. B MAILAKO TALDEAK** orain arte: Ligan 0-3 galdu zuen Bilbao Athletic-en aurka Ipuruan, 1-2 irabazi zion Real Unión-i Galen eta, azkenik, domekan husna berdindu zuen Logroñés-ekin Ipuruan. Ez dira emaitza onak etxean eskuratutokak, baina kanpoan ondo hasi dute denboraldia Javier Mandiolaren mutilek eta, Irungo garaipenarekin batera, Burgosen ere aurrera egin zuten Kopa txapelketan (0-1 irabazita) eta bihar dute hurrengo erronka,

Ipuruan Lanzarote hartuz arratsaldeko 20.30etan. Aukera bikaina, beraz, aurten aurrerago jotzeko lehiaketa horretan.

Alex Aranzabal eta zuzendaritzakoek aurrekontua murriztea erabaki dute aurten eta plantilak jokalaria gutxiago izango ditu; hala ere, igotzeko borrokan sartzeko asmoa dute.

Bestalde, 3. mailako taldeak berdinketa birekin hasi du denboraldia: Unben Gernikarekin husna egin eta gero, Barakaldo jaisi berriarekin bana berdindu zuen Gaizka Garitanok zuzentzen duen taldeak Lasesarren.



Manixek aurrendenboraldian Ipuruan alineatu zuen lehenengo hamaikakoa.

## Areto-foballeko Debabarrena erreferentea probintzian

**CONCEPTO CREATech DEBABARRENAREN PROIEKTUAREN TALDE NAGUSIAK NAZIONALA MAILARA IGO ETA GERO,** areto-foballean 2. B mailan jardungo duen Gipuzkoako talde bakarra

izango da eta horrek hainbat neurri hartzera behartu ditu taldeko agintariak. Horrela, aurrekontua bikoiztu dute denboraldi berrirako eta erdi-profesionalizazioaren aldeko apostua egin, 2. mailara igotzekotan guztiz profesionalizatzeko bidean.

Gaur egun bost talde ditu



Debabarrenak, 72 jokalarirekin: C. Createch (2. B maila), Debabarrena (Probintziako 1. maila), King-Kong (jubenilak) eta Debabarrena Eibar (kadeak eta infantilak). Jubenil mailako taldea osatzeko deialdia izan zen aurreko barixakuan.



Mutrikuko V. waterpolo torneoa ikusle asko bildu zituen beste behin.

## Waterpolo-eskolaren lehen urratsak

**URETAKO KIROL HAU PRAKTIKATZEKO GOGOIA DUTENEK GAUR 20.00ETAN DUTE IPURUAKO KANPOKO IGERILEKUETAN** euren burua aurkezteko aukera, atzo ordu berean izan zuten moduan. Urbat taldeak infantil mailako taldea osatzeko asmoa du denboraldi hasiberrian Espainiako klubaren arteko txapelketan parte hartzeko. Bestalde, bestelako maila guztietako kirolariak hildaren 12an, astelehenean, hasiko dute ikasturtea Orbeako igerilekuan.

### Mutrikuko torneo arrakastatsua

Uztailaren amaieran jokatu-tako Mutrikuko V. torneo inoiz baino arrakastatsua izan zen, egun biko jaialdian: senior mailako gizonezkoen hamabi talde eta emakumezkoen lau, infantil mailako beste birekin batera izan ziren parte hartzen. Infantiletan Urbat eskolakoak nagusitu ziren bitartean, Bartzelonako Unibertsitat Autonomak (gizonezkoak) eta Sant Andreu (emakumezkoak) izan ziren onenak euren lehietan.


## Gaur foball-zaletuen lehenengo bilera

**FOBALL-ZALETUEN DENBORALDI BERRIA HASIKO DA GAUR PORTALEAN,** 19.30etan hasiko den delegatu edo ordezkarien arteko bilerarekin. Lehenengo bilera horretan zehaztuko dute egutegia, ordutegiak eta parte hartuko duten taldeak. Azken txapelketan hamalau izan ziren parte-hartzaileak eta, euren artean, JoserAuto izan zen berriro ere txapeldun.

## Hasi da pilotarien denboraldi berria

**KLUB DEPORTIBOKO PILOTARIEK IKASTURTEA HASI DUTE ETA, HELDUENEK ASTELENEAN ENTRENATUKO DUTEN MODUAN,** astero bitan, infantil, kadete eta jubenil mailakoek Ipuruako frontoian jardungo dute eguztaren eta barixakuetan, 17.00etatik 19.00etara. Monitorea ere iazkoak izango dira: Angel Zubizarreta, Luis Narbaiza eta Bengoetxea.

Uztailaren amaieran Elgoibarren jokatu-tako Sigma Torneoan, bestalde, Klub Deportiboko Egaña, Markinako Arrietarekin batera, 22-19 nagusitu zen finalean Agirrebeña eta Porturen aurrean.



## 8 txosna egongo dira Arraten

**UZTAILAREN AMAIERAN TXOSNETAKO ORDEZKARIEK PRENTSAURREKOAN AURTENGO ARRATE JAIE-TAN TXOSNAK EGONGO ZIREN ALA EZ** zalantzan ipini arren (Udalak ezarritako zergak gehiegizkoak zirelako), azkenean betiko moduan txosnak egongo dira eta zapatuan bertan txosnak zelaian ipintzen jardun zuten, *“Udalaren aldetik tasen inguruko arazoa konpontzeko konpromisoa lortu da eta”*. Gauzak horrela, aurreko astean bilera egin zuten eta txosna gunerako egitaraua zehaztu zuten: programari eguaztenean, Arrate Egunaren bezperan ekingo diote 21.30etan egingo den herri-afariarekin. Ondoren, 23.30etatik aurrera kontzertua eskainiko dute Willis Drumond eta EH Sukarra taldeek eta goizaldeko 04.00-etan, azken urteotako martxari

jarraituta, jokoak egingo dira. Arrate egunean, eguerdian ohikoari jarraituz preso eta iheslarien aldeko elkarretartzea egingo da. Biharamona jai eguna izango dela aprobeztatuta, irailaren 8ko gauerako ere kontzertua antolatu dute, Ze Esate! taldearekin gauerditik aurrera.

### “Gehiegizko tasak”

Uztailean Arragueta Fest-ek, Eibarko Haritza eskubaloi taldeak, Eibarko LABek, Eibar Rugby taldeak, Ezker Abertzaleak, Eibarko Gazteak-ek, Jai-xak Herrixak Herrixandako elkarteak, Presoen lagunek eta Urbat waterpolo taldeak eman zuten agerraldian azaldukoak gogora ekarrita, honakoa azaldu zuten ordezkariak: *“Sanjuanetan gehiegizko tasak ezarri zizkiguten, metro lineal bakoitzeko eta eguneko 20 euro hain*





Uztaila amaieran txosnetako ordezkariak agerraldia egin zuten. / SILBIA HERNANDEZ

*zuzen ere. Bost eragileen artean ordaindu beharrekoa 2.400 euro ziren. Uztailaren hasieran Udalak deitutako jai batzordearen bilerara joan ginen eta tasen inguruko eztabaida mahai gainean jarri genuen. Bertan interes orokorreko ekimen moduan hartzeko eskatu genien kultura teknikariari eta baita Kultura zi-*

*negotzia den Esther Kareagari ere”*. Hala ere, Arrateko jaietan ere aurten onartutako udal ordenantzak jasotzen dituen tasei eusteko asmoa zutela ikusita, uztailean amaieran prentsaurrekoan azaldu zuten euren egoeraren larritasuna eta Udalarari zergak txosnen errealitatera moldatzeko eskatu zioten.

## NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

# ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu*

*Orain Eibarko BM-n ere bagaude*

- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

## Ikasturtea hasi dute gimnasia erritmikoan

**ATZO HASI ZUTEN IKASTURTEA IPURUA KLUBEKO GIMNAS-TEK,** aurrebenjaminetik hasi eta federatutako enarterainoko maila gutzietan. Lau urte eginda dituzten gaztetxoak matrikulatu daitezke, hau da, 2007raino jaiotakoek eta izen-emateak kiroldegiko pista berdean egingo dira. Taldea seniorretan lortutako 1. mailan dago eta Espainiako azpitxapeladuna da gaur egun.



## Judoan eta jiu-jitsuan jarduteko aukera berria


**KALAMUA JUDO TALDEAN ATZO HASI ZUTEN IKASTURTEA ETA INTERESATUTA DAUDEN NESKA-MUTIL GUZTIEK** orain dute aukera izena emateko. Honakoak dira ordutegiak: judoan, txikien kasuan, talde bat astelehenetan eta eguaztenetan arituko da eta beste bat martitzen eta eguaztenetan (kasu bietan ere, 17.30etatik 18.30etara) eta helduak astelehen, eguazten eta barixakuetan jardungo dute, 19.00etatik 20.30etara. Jiu-jitsu modalitatea praktikatzeko, bestalde, ordutegi bakarra dago: martitzen eta eguaztenetan (19.00-20.30).

## Dianako ehiza lehiaketa Zambran

**HILAREN 10-EAN EGINGO DA DIANA EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEAREN TXAKURRAREKIN EGIN BEHARREKO** ehiza txikiko lehiaketa soziala; bertan parte hartzeko bazkideek izena eman dezakete elkartearen lokaletan gaur bertan eta etzi, eguazten. Ohikoa denez, Zambran 09.00etan hasiko da lehiaketa (izen-emateak ordubete lehenagotik). Txaleko islatzailea eramatea beharrezkoa izango da.

## Eibarko I. Rallysprint-a dataren bila

**EKAINEAN EZIN ZELA ETA URRIAREN 1-ERA ATZERATU ZEN EIBARKO LEHENENGO RALLYSPRINTAREN DATAK** aldaketa berria izango du eta, Trafikoaren eta Eibarko Udaren baimenak jasota bazituen ere, asteburu horretan Aginaga auzoko jaiak ospatzekoak direnez, Escudería Eibarrek lasterketa azaroaren 19ra pasatzea eskatu du, bestelako aukera askorik ez baitago auto lasterketen egutegian.



## Garro eta Olabe bikain udako xake txapelketetan

**JULEN GARRO 10.A IZAN ZEN UZTAILAREN AMAIERAN JOKATUTAKO ESPAINIAKO TXAPELKETAN,** euskaldun gutxi inoiz lortutako posturik onenetakoa eskuratuz berak baino ELO gehiago zuten beste askorekin jokatu eta gero; hor lortutako puntuak esker, gainera, 40 puntu

irabazi ditu nazioarteko ranking-ean.

Bestalde, Holandako Vlissingen-en jokatutako torneoan, Edu Olabe izan zen gure ordezkari onena eta, horrez gain, ELO puntuetan 2.000 baino gutxiago dutenen artean bera izan zen nagusi, sari hori jasoz.

## Foball Eskolan izena eman daiteke

**EIBARKO FOBALL ESKOLAN JARDUTEKO IZENA EMAN DEZAKETE HILAREN 15-ERA ARTE** (bulegoetan, 17.00etatik 19.30ak arte) 2001etik 2003ra arteko urteetan jaiotako neska-mutiek. Eskola hori Ipurua anexoan egingo da.



Nora Varela garaile izan zen Debako Itsasmillan ere.

## Hiru domina Espainiako junior mailako igeriketa txapelketan

**NORA VARELAK HIRU DOMINA ESKURATU ZITUEN PALMA DE MALLORCAN JOKATUTAKO TXAPELKETA HORIETAN:** zilarrezkoa braza modalitateko 50 eta 100 metroko probetan eta brontzezkoa 200ekoan. Hamalau urteko igerilariarekin, Martin Aizpuri eta Deyane Hernández izan ziren Urbateko beste bi ordezkariak.

Aizpuri, gainera, hainbat finalerantz sartu zen.

Hortik aparte, udan egiten diren zeharkaldietan oso maila onean jardun zuten eibartarrak. Horrela, Debako Itsasmillan Nora Varela izan zen onena eta Ondarroako Zeharkaldian Aitzol Arrillagarentzat izan zen txapela, Andoni Lópezen aurretik.





Arrateren Gestorako partaideak, joan zen egunean egindako azken batzarrean. / EKHI BELAR

## Arrate eskubaloi taldeak agur esan dio 64 urteko ibilbideari

**AZKENEAN EZIN IZAN DIO-TE BIDE OKERRETIK ZIHOA-NARI BUELTA EMAN** eta Arrate eskubaloi taldea kudeatzen zutenek amore eman behar izan dute taldearen desagertzearen aurrean. Irailaren 1ean egindako ez-ohiko batzarrean, bazkideek taldearen desagertzea eta likidazioa onartu zuten, ikusita Gestorak egindako ahalegin guztiak ez dutela beste helbururik lortu. Batzar horretan Natasha Bergarak eta Koldo Goenagak (biak ere Gestorako partaide) esandakoaren arabera, "Eibarko Udala kenduta, bestelako erakundeek -Eusko Jaurlaritzak eta Gi-

puzkoako Foru Aldundiak- ez diote eskatutako laguntzari erantzun eta gauza bera gertatu da Kutxari eskatutako dirulaguntzarekin". Arrateren mailako beste taldeekin konparatuz, tratu desberdina jaso izatea salatu dute Gestorakoak.

Arratek, beraz, ez du talderik aterako. Baina, Asobal Ligako taldeaz gain, harrobiko lan handia egin da Eibarko taldean eta badirudi Eibarren ahalegina egingo dela beste talde bat sortu eta lan horrekin jarraitzeko. Gestorakoek, euren aldetik, Binguan lanean diharduten hamabost beharginen egoera konpondu nahi dute lehenbailehen.

## Espainiako Itzulia zapatuan pasatuko da Eibartik

**33 URTEGAN EUSKAL HERRITIK IGARO EZ DEN TXIRRINDULARITZA PROBAK** bi egunetan zeharkatuko ditugure errepideak: barixakuan Bilbon amaituko den etaparekin eta zapatuan Bilbotik irten eta Gasteizen amaituko denarekin. Azken hori, Itzuliaren amaieraren bezperan, pasatuko da gure herritik eta tarteko helmuga izango du Armeria Eskolaren parean (datozren urtean ospatuko diren zentro horren mendeurrenaren ospakizunen artean). Zapatuko azken-aurreko atapa hori 12.45etan irtengo da Bil-

botik Eibarrera handik ordu-betera pasatxo sartzeko, Aretio gainditu eta gero. Otaola Etorbidea eta Isasi kalea zeharkatu ondoren, Untzaga plazan eskumara joko dute eta, Juan Gisasola eta Sostoa kaleak igo ondoren, Elgetarantz abiatuko dira. Hori dela eta, erdigunea 12.00etan itxiko da trafikoarentzat eta ez da zabalduko 15.00ak arte.

Aurretik ere Espainiko Itzulia behin baino gehiagotan pasatu da Eibartik: hamahiru aldiz, azkena 1975ean; hiru etapa amaitu dira hemen eta behin irten da.



ESAIT-ek hainbat ekitaldi antolatu ditu Espainiako Itzulia Euskal Herrira ekartzearen neurriaren aurka, tartean zapatuan egin zen Gasteiz-Bilbo martxa. Eibartik igarotzearen ere, kontzentrazioa deitu dute Armeria Eskolaren parean.

**Ketesu 2010** *bulego eta kolektibitatearako instalazio osoak eta materiala*  
 altzariak, esklakiak, marpatzak, liburutegiak...  
**bulego materiala enpresetan banatzen dugu**  
 Estazioak 12, 20000 Eibar  
 Tfno. 943 21972 / 943 22972  
 Fax. 943 22968  
 email: info@ketes2010.com

**MUGICA** ITURGINTZA  
 AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA, GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA, PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN ERREFORMAK ETA ABAR...  
**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
 ZORU ERRADIATZAILEA  
 EGUZKI-ENERGIA  
**Egiguretarren, 18**  
 Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

**Turkiako plater tipikoak**  
**Prince döner kebab**  
**ETXERAKO ZERBITZUA**  
 943 530 806 Arragueta, 25  
 943 208 373 Isasi, 13

**KILT** ENGLISH CLASSES  
 Philip Wylie  
 Ingeles Irakaslea  
**Julian Etxeberria 8, behea**  
 Tfnoa: 943 20 81 21

## Indalezio Ojanguren argazki lehiaketa martxan

**UDALAK, KLUB DEPORTIBOAREN LAGUNTZAZ, 2011-KO INDALEZIO OJANGUREN XXIV. ARGAZKI LEHIAKETARAKO DEIA EGIN DU.** Argizaiola lehiaketaren sailkapenerako baliagarria den lehiaketara nahi duen guztiak aurkez ditzazke lanak: norberaren aukerako gaien inguruko argazkiak onartuko dituzte (gehienez 3 zuri-beltzean eta 3 koloretan), beti ere inoiz saritu gabekoak.


Lanak 40 x 50 zm.-ko kartulinarekin edo kartoiarekin indartuak aurkeztu beharko dira, eta argazkiak gehienez ere 30 x 40cm.-koak izan beharko dira. Lan bakoitzaren atzealdean lanaren izena azaldu beharko da. Egile bakoitzak izen berbera jarri beharko die aurkezten dituen argazki guztiei. Argazkiak hurrenkera jakin batean ikustea nahi izanez gero, zenbakituta aurkeztu beharko dira lanak. Egilearen datuak (izena, abizenak, NAN, posta helbidea eta elektronikoa, telefonoa...) kartazal itxia batean joan beharko dira, eta kartazala paketearen kanpoaldean erantsita. Kartazalean lanen lema jarri beharko da. Lanak Pegoran, herritarren zerbitzura-ko bulegoan jasoko dituzte urriaren 7ra arte eta epaimahaiak urriaren 15ean emango du bere erabakiaren berri. Lehiaketako irabazleentzat sari garrantzitsuak daude, hainbat ataletan bereiztuta.



## Juan San Martin ikerketa bekarako eskaera-epea zabalik


**EIBARKO UDALAK UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREKIN ELKARLANEAN EMATEN DUEN JUAN SAN MARTIN IKERKETA BEKARAKO ESKAERAK** aurkezteko epea irailaren 1ean zabaldu zen eta interesatuek urriaren 11ra bitartean izango dute horretarako aukera, Pegoran (herritarren zerbitzurako bulegoan). Euskarazko ikerketa sustatzea eta Juan San Martin ikerlari eibartarra omentzea helburu duen 9.000 euroko bekak X. edizioa betetzen du aurten eta, ohikoari jarraituz, ikerketa lanerako eskaintzen diren gaiak Juan San Martinek bere bizitzan zehar landutako esparruetara lotutakoak dira eta urteko urtera aldatzen joaten dira. Aurtengo lanerako aukeraturako gaia mendizaletasuna izan da.

Bestalde, aurtengo edizioan hainbat berritasun dago; garrantzitsuena ikerketa lanaren memoria aurkezteko epea luzatu egin dela da. Orain arteko deialdietan bekaren irabazleak 12 hilabeteko epea zuen ikerketa lana burutzeko eta aurten, berriz, epe hori 18 hilabetekoa izango da. Lehenengo deialdia 2001ean kaleratu zen, eta 2009. urtera arte urtero kaleratu da. Urte horretatik aurrera deialdia urte bitik behin egitea erabaki zen. Harrezgero 48 lagun aurkeztu dira deialdiotara eta horietatik zortzik jaso dute beka. Beka eskuratu dutenen lau lanek ikusi dute argia.




## Juan Antonio Palaciosen lanak Santurtzin

**GAUR 20.00-ETAN SANTURTZIKO THE WAGON-EN (MAESTRO CALLES KALEA, 4) INAUGURATUKO DUTE** Juan Antonio Palacios eibartarraren argazki erakusketa, Bihotz Gaztea argazkilaritza taldeak The Wagon-ekin elkarlanean antolatuta. Arrantza eta bere ingurukoak ardatz duen "Kaian" izenburuko argazki-bilduma urriaren 3ra arte egongo da ikusgai.



## E-Kultura aldizkariaren 100. alea

**GURE HERRIKO ESKAINTZA KULTURALAREN BERRI EMATEN DUEN E-KULTURA ALDIZKARIAREN 100. ALEAK ARGIA IKUSI BERRI DU** iraila hastearrekin batera. 2001. urteko irailean Udalak lehenengoz kaleraturako aldizkariak bere ibilbidean hirutan aldatu du itxura, gaur egun duen formatorra ailegatu arte. Hilabete bakoitzean antolatutako kultur ekitaldien arabera aldizkariaren orrialde kopurua gorabeherak egoten dira (16 eta 24 orrialde bitartean ibiltzen da) eta azalerako aukeraturako argazkiaren arabera gainontzeko orrialdeen kolorea ere aldatzen joaten da. 100. zenbakiaren azala eta kontrazala irailaren amaieran jaiak ospatuko dituen Aginaga auzoari eskaini dizkiote eta barruko orrialdeetan, ohikoari jarraituta, hilabete osoko eskaintza kulturalaren berri ematen dute. Aldizkaria doan banatzen dute Pegoran, Portalean zein kioskoetan eta nahi duenak etxeko buzoian jasotzeko aukera ere badu (aurtekin Portalean izena emanda). Internet bidez ordenagailura jaisteko aukera ere badago, egoibarra.com helbidean.



## Odol emaile bila

**GIPUZKOAKO ODOL EMAILEEN ELKARTEAK HERRITARREI, BEREZIKI GAZTEEI DEI EGIN DIE,** odol emaile egitera animatu daitezten. Izan ere, errelebo faltaren eraginez odola emango duen jendearen premian daude Gipuzkoako odol-bankuaren erretserbari eutsi ahal izateko. Pagaegi kalean aste birik behin egoten dira elkartekoak odola ateratzen. Hurrengo hitzordua hilaren 15ekoa izango da, 18.30etan.



## Kantabriako Etxeak zapatuan ekingo die jaiei

**EIBARKO KANTABRIAKO ETXEAK IRAILAREN 10-ETIK AURRERA OSPATUKO DITU BIEN APARECIDA JAIK.** Zapatuan 19.45etan Untzagan kalejiran abiatuko dira eta, ondoren, Ipurua alderako bidea hartuko dute, 20.30etan hango bolatokian "Romeria Montañesa" emanaldiari ekiteko. Erromerian parte hartzeko Kantabrietatik etorriko dira Alfonso Ahumada (rabelista), Francisco Jose López "Cote" (abesti kanpurriarria) eta Almudena López (abeslaria). Horiek batera Kaleetan Kantuz abesbatzako eibartarrek jardungo dute eta, emanaldiaz gozatzearekin batera, bertan prestatuko duten sardina-janean bap jateko aukera izango dute bertara gerturatzerantz animatzen direnek. Eta hurrengo egunean (domekan, irailaren 11n) Ipurua bolatokian bazkideentzat antolatutako igel, igel-toka eta "cuchillo" txapelketa jokatuko dira 17.30etatik aurrera.

Jaiak hurrengo asteburuan, irailaren 17an eta 18an jarraipena izango du: zapatuan 16.00etatik aurrera bazkideentzat antolatutako tute txapelketa jokatu da Kantabriako Etxean (Jardiñeta kalean). Garaile geratzen diren bi bikoteek afaria jasoko



Kantabrietatik etorriko dira "Romeria Montañesa" emanaldia eskaintzera.

ko dute sarritzat. Txapelketa amaitu eta jarraian musika emanaldia eskainiko dute. Eta Kantabriako Amabirjiñaren omenezko jaiei agur esan aurretik, domekan 12.00etan meza ospatuko dute Estaziño kaleko San Agustin elizan, 13.00etan piskolabisa eskainiko diete bazkide eta lagunei eta 15.00etan Eskarne jatetxean egingo duten bazkariarekin agurtuko dituzte jaiak, hurrengo urtera arte.

## Reugenio eta Alberto Cortéz irailan gurean

**JAI PRODUCTIONS PRODUKTORAKOEK IKASTURTEAREKIN BATERA EHINGO DIOTE DENBORALDI BERRIARI,** emanaldi bi antolatuta. Batetik irailaren 17an, zuzeneko umorean oinarritutako "Reugenio" izenburuko ikuskizuna Lambretta Klubarekin elkarlanean antolatu dute (20.00etan Coliseoan) eta sarrerak honezgero salgai daude, 12 eurotan, Birjiñape, Portalea,



Trinkete, Arno, Terraza eta Caserio tabernetan (leihatilan 15 euro). Ikuskizunean orain dela 10 urte hil zen Eugenio komikoaren unerik ezagunak ekarriko dizkie gogora ikusleei, haren seme Gerard Jofrak-en eskutik.

Eta, horrez gain, irailaren 30ean 21.30etatik aurrera Alberto Cortez zuzenean entzuteko aukera izango da Coliseoan. Argentinan orain dela 71 urte jaiotako artistak luzaroan ez du gure inguruan emanaldirik eskaini eta, beraz, bere musika zuzenean entzuteko irrikitan daudenentzat Eibar-ko emanaldia horretarako aukera paregabea izango da. Kontzerturako sarrerak aldeztu aurretik salgai daude, gorago aipatutako tabernetan, 20 eurotan. Sarrerak internet bidez erosi nahi izanez gero [www.jaiproductions.net](http://www.jaiproductions.net) helbidean horretarako aukera badago.

Eta bien bitartean, XXVI. Euskadiko Galiziaren Egunaren inguruan antolatutakoak girotzen laguntzeko, irailaren 22an Rosa Cedrón eta bere taldeak Coliseoan emanaldia eskainiko dute.

## laburrak

### EUSKALTEGIETAKO MATRIKULAZIOA

AEK euskaltegian izena emateko epea irailaren 1ean zabaldu zen eta interesatuak hilaren 30era arte izango dute horretarako aukera. Udal Euskaltegian, berriz, irailaren 22ra arte egongo da matrikulatzeko aukera. Ohiko klase presentzialez gain, autoikaskuntza bidezkoak ere egongo dira. Bestalde, Udalak, AEK-k eta Udal Euskaltegiak elkarlanean kanpaina berezia egingo dute gurasoentzako. Kanpaina horren barruan HH eta LHko umeak dituzten gurasoei zuzendutako informazio-bilera egingo da Portalean, irailaren 13an, 18.00etan. Informazio gahiago nahi izanez gero, deitu telefono hauetara: 943700918 (Udal Euskaltegia) edo 943201379 (AEK).

### ESPERIENTZIA ESKOLA

Esperientzia Eskolaren ikasturte berrirako matrikulazioa martxan dago eta interesa duenak Debabarreneko zortzi udaletako batera jo dezake bete beharreko inprimakiak jaso eta betetzeko edo, bestela, [ikasteneibar@yahoo.es](mailto:ikasteneibar@yahoo.es) helbidera idatzi edo, bestela, deitu: 626773676.

### DIBUJO ETA ZERAMIKA ESKOLETAN IZEN-EMATEA

Eguaztenean, irailaren 7an amaituko da Udal Dibujoko eta Zeramika eskolatan izena emateko epea. Informazio gehiagorako Pegorara jo daiteke edo telefonoz deitu 010 edo 943708400 zenbakietara.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
☎ 943 201095 fax: 943 202564

**EMAKUME ETA GIZON  
MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7



## Josean Salado hil da




**Josean Salado, Lisker Eibarko rock taldearen sortzaileetako eta lehenengo bateria abuztuaren 4an hil zen.** Aurtengo Sanjuanetan pregoia eman zuen, Javi Zabala taldekidearekin batera, Lisker omendu zuten ekitaldien artean.

### JAIOTAKOAK


- Martina Gabilondo Murga. 2011-VII-3.
- Eider Varona Arizmendiarieta. 2011-VII-7.
- Joane Vega Mata. 2011-VII-8.
- Yaser Bensarghin. 2011-VII-15.
- Jon Badiola Albizu. 2011-VII-17.
- Ian Zhiri Outeriño. 2011-VII-17.
- Sara Azpiazu Cardama. 2011-VII-18.
- Paule Godoy Pascual. 2011-VII-19.
- Irati Garate Ariznabarreta. 2011-VII-21.
- Miren Belda Zuluaga. 2011-VII-22.
- Markel Mendiguren Orbegozo. 2011-VII-22.
- Danel Talán Oiarbide. 2011-VII-24.
- Iraia Ramos Gil. 2011-VII-25.
- Lihier Telleria Urzelai. 2011-VII-26.
- Julen Martín Bedoya. 2011-VII-27.
- Julene Menez Barrera. 2011-VII-28.
- Martín Zelaia Andonegi. 2011-VII-28.
- Marcos Blanco Gutiérrez. 2011-VIII-2.
- Laia Moreno Del Barrio. 2011-VIII-3.
- Oier Acha Valdemoros. 2011-VIII-4.
- Sare Osoro Bidosola. 2011-VIII-5.
- Josu Ezenarro Garitagoitia. 2011-VIII-6.
- Daniela Schmidt González. 2011-VIII-8.
- Aroa Alonso Morán. 2011-VIII-9.
- Paula Alonso Morán. 2011-VIII-9.
- Ubay Benslaiman Benslaiman. 2011-VIII-9.
- Peio Bilbao Rodríguez. 2011-VIII-10.
- Martina Fernández Basabe. 2011-VIII-11.
- Markel Seguin Cid. 2011-VIII-11.
- Ixone Vázquez Sáez. 2011-VIII-11.
- Samah El Ayadi Aroubio. 2011-VIII-12.
- Ibai Zubizarreta De Miguel. 2011-VIII-12.
- Issam Benamar. 2011-VIII-15.
- Laura García-Antón Da Palma. 2011-VIII-16.
- Unai Lorenzo Hortas. 2011-VIII-17.
- Oihan Martín Rodríguez. 2011-VIII-18.
- Xabier Iraola Ramiro. 2011-VIII-19.
- Iratitz Hernández Sáez. 2011-VIII-19.
- Nahia Eizagaetxerria Espinosa. 2011-VIII-23.

## laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, MAIALEN, gure etxeko printzesa. 9 muxu handi zuretzat, aitta, ama, Iker, Nora eta famelixaren partez. Aupa, Txapelduna!



Zorionak, ENEKO, zure zortzigarren urtebetetzian. Kaixo Eibarko laguneri Donostia aldetik.



Zorionak, AINHOA Bizkarra, abuztuaren 31n zazpi urte egin zenduazelako. Etxeko guztien partetik.



Zorionak, MONIKA, abuztuaren 26xan urtiak bete zenduazena. Laztan handi bat Iker, Itzá eta beste guztien partez.

### HILDAKOAK

- Tomasita Atxa Telleria. 91 urte. 2011-VII-4.
- Amaia Urkidi Iriondo. 59 urte. 2011-VII-4.
- Jose Antonio Agirre Arriola. 71 urte. 2011-VII-4.
- Concepción Albistegi Ruiz. 80 urte. 2011-VII-5.
- Josefina Rekalde Mandiola. 89 urte. 2011-VII-5.
- Juan Serrano Moreno. 85 urte. 2011-VII-5.
- Carmen Etxeberria Lekunberri. 84 urte. 2011-VII-7.
- Manoli Arizaga Uribe-etxeberria. 79 urte. 2011-VII-7.
- Adela Diéguez Del Río. 87 urte. 2011-VII-8.
- Gregoria Juaristi Azpiri. 95 urte. 2011-VII-8.
- Alberto Eibar Iraola. 72 urte. 2011-VII-10.
- Jose Eugenio Gómez Alcedo. 50 urte. 2011-VII-10.
- Angel González Tabernero. 81 urte. 2011-VII-12.
- Julian Arrate Amillategi. 64 urte. 2011-VII-14.
- Jose Fernández Marcos. 87 urte. 2011-VII-15.
- Eufemia Mendikute Alzibar. 84 urte. 2011-VII-16.
- Pablo Penedo Eubieta. 40 urte. 2011-VII-18.
- Teresa Andino Basarrate. 81 urte. 2011-VII-20.
- Luisa Alzelai Bastida. 83 urte. 2011-VII-20.
- Dolores Montejo Busto. 82 urte. 2011-VII-21.
- Isabel Pareja Ponce. 2011-VII-25.
- Elvira Elkoriribe Unzetabarrenetxea. 93 urte. 2011-VII-29.
- Trinidad Garín Garín. 86 urte. 2011-VII-30.
- Angel Uranga Astigarraga. 92 urte. 2011-VII-31.
- Peio Muniozguren Muguruza. 78 urte. 2011-VIII-1.
- Jose Antonio Salado Serrano. 51 urte. 2011-VIII-4.
- Rosarito Mínguez Arrillaga. 72 urte. 2011-VIII-7.
- Enrique Agirrebeña Alonso. 85 urte. 2011-VIII-8.
- Rafaela Cid Prieto. 78 urte. 2011-VIII-11.
- Angel Fernández Frutos. 91 urte. 2011-VIII-11.
- Santiago Díaz García. 70 urte. 2011-VIII-13.
- Gorka Ruiz García. 37 urte. 2011-VIII-13.
- Alberto Anguera Gorrotxategi. 2011-VIII-14.
- Clara Madina Pagoaga. 99 urte. 2011-VIII-16.
- Jesus M<sup>a</sup> Larrañaga Elgea. 2011-VIII-17.
- Martín Domínguez Rubio. 80 urte. 2011-VIII-19.
- Anastasio Egia Iriondo. 82 urte. 2011-VIII-20.
- Justino López Benito. 83 urte. 2011-VIII-20.
- Juan Castro Sandoval. 82 urte. 2011-VIII-21.
- Pablo Nieto Higuera. 69 urte. 2011-VIII-21.
- Alejandro Esteban De Andrés. 90 urte. 2011-VIII-24.
- Jose Muniozguren Seguro. 89 urte. 2011-VIII-26.
- Ines Lasa Lasagabaster. 72 urte. 2011-VIII-29.
- Rosa Ruiz Conde. 75 urte. 2011-VIII-31.
- Jose Manuel Fernández Uranga. 87 urte. 2011-VIII-31.
- Angel Ronco González. 91 urte. 2011-IX-2.



**telefono jakingarriak**

- SOS delak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

**autobus ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

**tren ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.35. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

**horoskopoa**

**ARIES**  
Ematen du oporretan ibili ez zarela. Umore txarrez, nekatuta... opor berriak behar dituzu. Ea nola ematen diozun buelta egoerari.

**TAURUS**  
Azken hilabetean bizi duzuna gogoan izango duzu momentu oro eta zaila egingo zaizu atzean lagatzea. Hankak lurrean jarri eitzazu.

**GEMINI**  
Ba al da norbait zu baino uda hobea pasatu duenik? Zalantzak ditut. Ea orain ere berdin edo antzera ibiltzen zaren.

**CANCER**  
Aurrera jarraitu behar baduzu ere, ez dago txarto lantzean behin bizi izan duzunaz jabetzea. Batzutan gauza asko ikasi ditzakezu.

**LEO**  
Ondo dakizu nahi duzuna lortzeko lan handia egin behar duzula. Orain, pilak kargatu ostean, badaukazu adina indar hori egiteko.

**VIRGO**  
Pozik bueltatu zara oporretatik eta pozik jarraituko duzue aste honetan. Hainbat gauza aldatu egin direla konturatuko zara.

**LIBRA**  
Asko daukazu oraindik ikasteke, nahiz eta dena dakizula oste. Umilagoa izaten ikasiko duzue denbora gutxian, zergatik ote?

**SCORPIUS**  
Jairik jai ibili ostean, uda hasi zenean baino okerrago daukazu gorputza orain. Baina, zeinen ongi pasatu duzun! Bejondeizula!

**SAGITTARIUS**  
Gogotsu ekingo diozue kurtso berriari. Lanpetuta ibiliko zara hasiera batean, baina denari aurre egiteko gai izango zara, arazorik gabe.

**CAPRICORNIUS**  
Ez zaitez hain triste ipini. Bai, uda badao, baina gauza asko dituzue oraindik gozatzeko, udan baino gehiago zuk horrela nahi baduzu.

**AQUARIUS**  
Beste pertsona bat zarela ematen du uda ostean. Batek daki zer gertatu zaizun, baina asko aldatu zara. Onerako ala txarrerako?

**PISCIS**  
Lanik apenas duzun eta ez zaizue gogorregia egingo du bueltako lehen txanpa. Ez pentsa, hala ere, beti horrela izango denik.

**farmaziak**

- 6, martitzena**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 7, eguaztana**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 8, eguena**  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 9, barixakua**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 10, zapatua**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 11, domeka**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 12, astelehena**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 13, martitzena**  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 14, eguaztana**  
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 15, eguena**  
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 16, barixakua**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

**SUDOKUA**

|   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|
|   |   |   | 3 |   |   | 7 |
|   | 2 |   | 5 |   |   |   |
|   |   |   |   | 2 | 8 | 1 |
|   | 4 |   | 6 | 9 |   | 3 |
| 5 |   |   |   |   |   | 9 |
| 7 | 3 |   | 4 | 8 | 5 |   |
| 1 | 9 | 3 |   |   |   |   |
|   |   |   | 3 |   | 6 |   |
| 8 |   |   | 9 |   |   |   |

**DENBORAPASAK**

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 5 | 6 | 7 | 4 | 2 | 1 | 9 | 3 |
| 4 | 1 | 3 | 8 | 6 | 9 | 5 | 7 | 2 |
| 2 | 7 | 9 | 5 | 3 | 1 | 8 | 6 | 4 |
| 7 | 0 | 1 | 3 | 2 | 6 | 9 | 4 | 5 |
| 6 | 3 | 5 | 9 | 8 | 4 | 7 | 2 | 1 |
| 9 | 2 | 4 | 1 | 7 | 5 | 3 | 8 | 6 |
| 1 | 4 | 7 | 2 | 8 | 3 | 6 | 5 | 0 |
| 3 | 6 | 8 | 4 | 5 | 7 | 2 | 1 | 9 |
| 5 | 0 | 2 | 6 | 1 | 8 | 4 | 3 | 7 |

AURREKOAREN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisu berria (5 urte) eta trasteroa salgai Mendaron. Logela bi. 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. 170.000 euro. Tel. 690-787891.

– Pisua salgai Ipuruan. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi eta ganbara. Kalefakzioa. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 690-310927.

### 1.2. Errentan

– Lan arrazoiak direla-eta, Ermura etorri bazara epe zehatz baterako, pisua alokatuko nizuke Ermua erdialdean. Guztiz jantzia eta igogailuarekin. Tel. 636-257546.

– Pisua alokagai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua. Deitu 20.00etatik aurrera. Tel. 687-537371.

– 3-4 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 678-097247.

– Logela biko pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 626-584512.

– Ubixtan buhardila alokagai. Logela bat, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Internet seinalea. Prezio interesgarria. Tel. 620-611718.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Amañan lokala alokatzen da. 180 m<sup>2</sup>. Argitsua eta autoendako sarrera onarekin. Tel. 605-771570.

– Garajea alokagai (marra) San Andres pasealekuan. Tel. 617-688311. Elena.

– Garaje itxia alokagai Urkizu inguruan. Tel. 617-688311. Elena.

– Garaje itxia alokagai Urkizun. Tel. 943-127100.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-129530.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-910991.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-846740.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informea. Tel. 662-252150.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 651-836353.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 686-389493.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserriko beharrak egiteko. Esperientzia. Tel. 630-031218.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziekin. Tel. 662-252150.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 671-826434.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako, nagusiak zaintzeko eta tabernak garbitzeko. Tel. 630-365137.

– Neska eskaintzen da 10.00etatik 17.00ak arte nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 679-910991.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-481945.

– Neska eskaintzen da orduka edozein lanetarako. Esperientzia. Tel. 669-966611.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 646-143287.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 657-394754.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 668-301550.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 657-396018.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Ordutegi zabala. Tel. 689-273664.

### 4.2. Langile bila

– Kamarera behar da Eibarko kopa taberna batean. Tel. 639-588353.

– Neska euskalduna behar da kontsulta harrerarako, amatasun baja bat kubritzeko. Tel. 943-203050.

– Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 687-044311.

– Sukaldaria behar da Kultu tabernan. Tel. 685-738435.

– Kamarera/o behar da extra moduan Arrateetarako. Esperientzia eta autoarekin. Tel. 677-638184.

– Zaintzailea behar da irailetik ekainera goizez (07.00-09.30) urte biko umea zaintzeko. Tel. 660-522271 (mezua laga).

– Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu eguerdian edo iluntzean. Tel. 688-841181.

– Kamarera/o behar da extra moduan. Esperientzia eta autoarekin. Tel. 677-638184.

– Aho eta hortz higienista behar da hortz-klinika batean. Bidali kurrikulumak: dentalweb@hotmail.com

– Klinika laguntzailea behar da hortz-klinika batean. Bidali kurrikulumak: dentalweb@hotmail.com

– Ileapaintzailea behar da. Esperientziarekin. Tel. 620-721007. Sonia.

– Kamarera euskalduna behar da jatetxe baterako. Tel. 943-121262.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Informatika klaseak ematen ditut. Oinarrizko mailatik aurrera. Tel. 679-740061.

– Gitarra elektrikoko klaseak ematen dira. Tel. 679-740061.

– Informatikako klaseak ematen dira: web orriak nola egin, ordenagailuaren arazoak zelan konpondu... Tel. 679-740061.

– Alemaniarazko klaseak ematen ditut: haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– “La vida en los océanos” bilduma originala salgai. Oparitzeko aproposa. 10 CD-Bideo. 30 euro. Tel. 679-740061.

– Funtzio anitzeko xurgagailu-robotak salgai. Erabili gabea. Prezioa adosteko. Tel. 943-120030 eta 637-020261.

– Aire egokitu portatila salgai. Olimpia Splendidissimo 11 modeloa. Potentzia: 3.000 frig/orduero. Tel. 659-453667.

### 6.4. Bestelakoak

– Bideoak pasatzen dira VHS formatotik CD-ra. Merke. Tel. 679-740061.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

# CAPI

09.00-13.00 / 14.30-20.00 Zapatuetan: 09.00-13.00

## Gorputz tratamenduak

- KOIPE GUTXITZEA
- ZELULITIS GUTXITZEA
- AZAL INDARTZEA



5 saiorako  
**BONOA**

masajea  
**OPARI**  
saioa  
35 euro

## Laser fotodepilazioa


## Aurpegi tratamenduak

Berehalako eragina duen

**GAZTETZE**  
TRATAMENDUA




lehen



orain

|                              |       |
|------------------------------|-------|
| ezpainak .....               | 10 €  |
| besapeak .....               | 50 €  |
| izterondoak + besapeak ..... | 100 € |
| erdiak .....                 | 120 € |
| erdiak + izterondoak .....   | 160 € |
| osoak .....                  | 200 € |
| osoak + izterondoak .....    | 250 € |
| besoak .....                 | 120 € |
| bizkarra .....               | 120 € |

**3x2**



# EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA



### ESKAINNTZA

- Euskalduntze eta alfabetatze **1kataroak**
- 3. maila (EGA) **egunero eta astean bitan**
- Azterketa prestakuntza: **HABEren 1. eta 2. mailak (Perfilekin homologatuta)**
- Titulu ofizialak

### IKASTARO BEREZIAK

- Autoikaskuntza: **BOGA programa (tutoretzak eta mintzasaiolak)**
- Etorkinentzako **harrera-ikastaroak (AISA)**
- EGATik gorakoak: **sakontze, itzulpengintza, Euskaltzaindiaren arauak, 4. maila...**
- Eibarrera
- Mintza-praktika **ikastaroak**
- Talde bereziak: **jubilatuak, gurasoak...**
- Ikastaroak enpresetan



**Bista Eder 10 -PORTALEA-**



euskaltegiaelbar@telefonica.net

Telefona: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89

EibarkoUdalaketa**HABEK**  
diruzlagundutakozentroa  
Bekak

# TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

**Materia arriskutsuak / C.A.P.**

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko  
**nazioarteko** agentzia **ziurtagiriak**  
lortzeko ikastaroak



**T. Etxebarria, 7**

**Tel. 943 70 23 84**

**Tel. 943 70 23 78**



**Irribarreak**  
gaztetu egiten gaitu

**m** **bista eder**  
clínica dental - hartz klinika

**Inplante eta**  
**Hortz-Estetikan**  
adituak

Bista Eder Hartz Klinika  
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75